

hh
hik hasi

175



GAIA: MAHAI-INGURUA ESPAINIAKO HEZKUNTZA ERREFORMARI BURUZ •
ELKARRIZKETA: PILAR ARISTIZABAL • PARTAIDETZA (V) • KIMUTX •
SUPERMERKATUA HAUR HEZKUNTZAKO GELAN • GALDEIDAZUE: PAUL BILBAO •
ENKARTERRIETAKO MUSEOA • ENEKO BARBERENA

5. ekar ilustrazio eta ipuin lehiaketa

oinarriak:
www.elkar.com-en
eta ekar sareko
liburu-denda
guztietan.



aurkibidea



10
gaia

LOMCE HEZKUNTZA LEGEA

'hik hasi' aldizkariak hezkuntzaren komunitateko eragile nagusiak bildu ditu mahaiaren inguruan, hezkuntza-erreformaren edukiak sakon aztertu eta aurrera begirako aukerak eta estrategiak eztabaidatzeko.



18
elkarrizketa

PILAR ARISTIZABAL

'Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan: Gasteizko irakasle eskolaren kasua' izenburuko tesia egin du, eta hango ikasleek berdintasunean oinarritutako formazioa jaso dezaten eta berdintasunean oinarritutako irakaskuntza emateko gaitasunak eskura ditzaten du helburu.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

MAHAI-INGURUA: Espainiako hezkuntza-erreforma aztergai

18 elkarrizketa

PILAR ARISTIZABAL. Gasteizko Irakasle Eskolako irakaslea

25 PARTAIDETZA (V)

32 ekarpenak

Kimutx-ekin alai eta pozik

34 esperientziak

Supermerkatua Haur Hezkuntzako gelan

36 galdeidazue

Nola jokatu beharko genuke eskolan euskararen normalizazioan aurreratzeko? Paul Bilbao Sarria

40 nora joango gara?

Enkarterrietako Museoa

42 Atzeko atetik

Eneko Barberena. Txatxilipurdi Elkarte

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA.** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2013-01-25). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Eman diezaiogun hezkuntzari **garrantzia**



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Entitate	Sukurtsala	K.D.								Zenbakia
Sinadura										

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

otsaila

“Gure herrian, gure eskola”



Aurrera begira ere, bitarteko handiagoak, kanpoko injerentziarik ez egoteak eta oinarri zientifikotan lan egiteak hobetuko dute geure hezkuntza.

“Etsita” etorri omen da Madrildik Cristina Uriarte, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua, Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroarekin LOMCE lege aurreproiektuaren gainean izandako bilerearen ostean: “Aurreproiektua itxita dago eta parlamentuko tramitearekin egingo dut aurrera”, esan omen zuen ministroak.

Hutsune tekniko batzuk ikusi baditu ere, hezkuntza-lege erreformarekin erabat ados agertu da Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza kontseilaria.

Kezkagarria da guretzat, LOMCE aurreproiektuak zentralizazioan nola sakontzen duen ikustea, zer-nolako kontrol ideologikoa finkatzen duen, nola baldintzatzen duen arlo pedagogikoa, zer argudio azientifikoekin ezartzen duen gaztelania beste hizkuntzen gainetik, nola murrizten duen eskola-komunitatearen parte-hartzea, eta abar.

Gure herriak hamarkadak daramatza bere ibilbide propioa eraikitzen, eta lortutako emaitzak nahiko onak dira. Irakasleen, ikasleen, gurasoen, herritarren eta

hainbat instituzioren parte-hartzearen ondorioz, euskalduntzean aurreratzen ari gara, curriculumak eskola komunitateetara egokitzen ari dira, aniztasuna landuz eskola inklusiboagoa egin da, eta abar. Horrek guztiak, gure hezkuntza Europako batez besteko mailan jarri du, Lanbide Heziketa Europako hoberenetakoa egin du, ikasleen arteko aldea murriztu egin du, oro har, maila hobetzen ari delako; eta, ondorioz, herritarren kohesioan lagundu egin du.

Horregatik, gure hezkuntza hobetuko duten neurriekin jarraitu behar dugu:

- Euskara Kontseiluak sustatuta eta hezkuntza eragileak elkarlanean arituta eta adostuta, *Ikasle enskaldun elemitzak sortzen* proposamena errealitate bihurtzen segitu behar dugu. Izan ere, euskaraz (Dereduan) ikasten dutenak dira, nagusiki, bi hizkuntza ofizialetan maila nahikoa lortzen dutenak. Horrek aukera berdintasunean laguntzen du, beste hizkuntza batzuk ikasten errazten du, eta jendarteakohesionatuagoa egiten du.

- Geure herriko curriculumak garrantzeko egiten ari diren ahaleginak sustatzen. Bertakoa biziz eta ezagutuz mundura irekiz.

- Legearen zentralizazio berriaren aurrean, deszentralizazioa handitzen eta eskola-komunitateko guztien parte-hartzea bermatzen jarraitu behar da. Praktikak erakutsi baitigu eskola-komunitateak parte hartzen duen heinean, ikasleek era guztietako emaitzak hobetzen dituztela, emaitza akademikoak barne.

- Ikasleen arteko bereizketei uko egiten eta inklusioan gehiago sakontzen.

- Gure herriaren eta herritarren beharren arabera hezkuntza eraikitzen.

Izan ere, eguneroko lanak eta elkarlanak erakutsi digute bide zuzena zein den. Orain arteko baldintzak hain egokiak ez izan arren, gure herrian lortu diren hezkuntza-aurrerapenak nabarmenak izan dira. Eta, aurrera begira ere, bitarteko gehiago izateak, kanpoko injerentziarik ez egoteak eta oinarri zientifikoz lan egiteak hobetuko dute geure hezkuntza.

hizpide



Hezkuntza-erreformaren aurkako protesta eguna deitu dute sindikatuek martxoaren 2rako

ELA, LAB eta EILAS sindikatuek Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen hezkuntza erreformaren aurkako mobilizaziorako deia zabaldu dute. Hezkuntza eragileekin harremanetan jarri ostean, martxoaren 2a jarri dute kalean protesta egiteko eguna. Hezkuntza erreformaren aurreproiektuaren aurka azaldu dira, “inposatzailea, espainolizatzailea, uniformatzailea, atzerakoia, adoktrinatzaila, segregatzailea eta elitista delako”.

Hala diote hiru sindikatuek, deialdiarekin batera adostu duten *Murrizketarik ez! LOMCE ez! Euskal Herrian, gure hezkuntza!* izenburuko manifestuan. Euskal Herriko hezkuntza komunitateak azken urteetan “izugarritzko erasoak” pairatu dituela eta LOMCE aurreproiektua horietako beste

bat, “benetan larria”, dela diote sindikatuek. Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroaren lege egitasmoaren aurka jotzeko arrazoiak aletu dituzte agirian. Batetik, “Estatuaren birzentralizazioa eta gure hezkuntza erabakitzeke orduan erabateko muga inposatzea bilatzen” duela uste dute, edukiak Madrilén finkatu eta ebaluazio-sistemak zentralizatuko dituelako. Bestetik, “gure nortasun, eskubide eta hezkuntza sistemaren ardatz beharko lukeen euskarari eraso zuzena” ekarriko diola diote, euskara “bigarren mailako hizkuntza” izatera pasako litzatekeelako eta ez lukeelako hizkuntzaren “ezagutza eta erabilera inola ere ez bermatuko”.

Merkatu eta enpresen zerbitzura jarritz

“hezkuntza merkantilizatzeko urrats oso larria” da lege egitasmoa, sindikatuaren ustez, eta “Espainiako Estatuaren uniformazioa, espainolizazioa eta baliorik atzerakoienak oinarritzat hartuz adoktrinamendu ideologiko, politiko eta erlijiosorako bidea irekitzen du, hezkuntza segregatzaile eta klasista bultzatuz”.

Badira arrazoi gehiago, ELA, LAB eta EILASen iritziz, erreformaren aurka azaltzeko. “Ikasleen garapen pertsonala, heziketa integrala eta aukera berdintasuna mugatzen ditu”, diote manifestuaren beste puntu batean, “hezkuntza tokian tokiko beharretara egokitzeko moduak eta ebaluazio pertsonalizaturako aukerak mugatzen ditu”, “hezkuntza komunitatearen parte-hartzeko aukera eta bideak murrizten ditu”, eta “zerbitzu publikoak pribatizatzeko aukera areagotzen du”.

Hori dela eta, LOMCEk ekarriko dituen “atzerapausoak” onartzeko prest ez daudela adierazi dute, eta Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta alderdi politikoei eskatu diete “murrizketa politikei eta lege aurreproiektu honi aurre egiteko eta gure herrian ez ezartzeko”. Halaber, dei egiten diete haiei eta baita hezkuntza eragileei eta gizarte osoari ere “gure herriak behar eta nahi duen hezkuntza indartzeko eta Euskal Herrian erabaki eta eraiki dezagun pausoak ematera”.

Eskaera Parisi

Bestalde, Frantziako hezkuntza publikoko hainbat eragilek, tartean Ikas-Biguraso elkarteak, “hizkuntza gutxituen sustapena bermatuko duen egiazko politika egiteko” eskatu diote Parisiko Gobernuari, presatzen ari den hezkuntza-erreforma dela eta.

izan da

Uriartek “etsigarria” iritzi dio Wertekin egin bilerari, eta Iribasek bere egin du erreforma, “hutsuneak hutsune”

Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko hezkuntza sailburuak, Cristina Uriarte eta Jose Iribar hurrenez hurren, Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroarekin bildu ziren urtarrilean, LOMCEri buruz hitz egiteko. Bileratik ondorio ezberdinak atera zituzten. Uriartek “bilera etsigarria” izan zela adierazi zuen, Wertek esan baitzion hezkuntzaren erreformarako lege aurreproiektua “itxita” dagoela eta parlamentuko tramitearekin aurrera egingo duela. Erreformarekin loturiko bi gai negoziatzeko asmoz joan zen Uriarte bilerara: “Euskarari zor zaion errepetua eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren esparruan dituen eskumenak”. Ez bata ez bestea ez zuen kontuan hartu ministroak, baina hala ere, lanean jarraitzeko asmoa azaldu du Uriartek. Hori dela eta, zehatzagoa izateko eta Espainiako Go-

bernuaeren itxikeriaren aurrean zer neurri hartuko dituen azaltzeko eskatu diote PSE-EEk eta LABek Uriarteri.

EHUko Ikasle Kontseiluak ministroaren jarrera “despotiko eta intrantsigentea” salatu du eta hezkuntza eragileak “gutxieste” aurpegiatu dio. Unibertsitate komunitatearekiko “errespetua” eskatu dio Wert, eta Uriarteri “herri honen eredu irmo eta gogotsu defendatzeko, Eusko Jaurlaritzak unibertsitatearen kalitatezko unibertsitate euskaldunaren alde egin behar baitu”.

Jose Iribas askoz baikorrago azaldu zen Wertekin bildu ostean, hezkuntza erreformak “Nafarroaren berezitasunak” kontuan hartuko dituelakoan. “Nafarroaren errealitatea irakasteko tokia bermatuko da. Espainiari, Europari eta munduari lotutako Nafarroa irakatsiko da”.

Bost urteko haur bat eskolatik polizia etxera eraman dute Uztaritzen, gurasoek kantinarekin zorra zutelako

Hautsak harrotu ditu urtarrilaren hasieran Uztaritzeko Saint Vincent eskola pribatuan gertatutakoak. Bi udaltzainek 5 urteko neskatu bat atera zuten eskolatik, eta polizia etxera eraman zuten, haren gurasoek hilabeteak zeramatatzelako eskolako kantina ordaindu gabe. Haurra bazkaltzen ari zela sartu ziren udaltzainak eskolan, Dominique Lesbats Uztaritzeko auzapezak hala aginduta. Eskolatik amaren etxera eraman zuten, baina bertan inor

ez zegoenez, Udaltzaingora eramatea erabaki zuten.

Vincent Peillon Frantziako Hezkuntza ministroak “lotsagarria eta onartezina” iritzi zion gertatukoari. “Gurasoek zailtasunak dituzten arren, sekula ere ez da jo behar haurren kontra”, esan zuen. “Haurren kontrako bortizkeria eskandalagarria” izan zen umea eskolatik polizia etxera eramatea, Peillonon hitzetan. LAB sindikatuak ere gaitzetsi du Uztaritzeko Herriko Etxearen erabakia.

Baionako suprefetak laguntza ukatu dio Hendaia ikastolari

Hendaia ikastola berria egiteko diru-laguntzarik ematea debekatu dio Patrick Dallennes Baionako suprefetak herriko Udalarari. 1850. urteko Falloux legea baliatu du Dallennesek debekurako aitzaki gisa, eskola pribatuei diru publiko ematea garalazten duen legea, hain zuzen ere.

Suprefetaren erabakiak, Hendaia ikastolaren etorkizuna ez ezik, Seaskako zentro gehienena ere kolokan jarri duela ohartarazi du Hur Gorostiaga Seaskako zuzendariak. Izan ere, 30 zentroen 27k laguntza publikoak jasotzen dituzte. Gorostiagaren hitzetan, “eraso bortitza, gerra deklarazioa” da Dallennesen debekua. “Ezin dugu onartu gure zentro gehienak ixtea”, adierazi du. Hain zuzen, Hendaian hartu den neurria Ipar Euskal Herri osoa zabaltzen badu, bost ikastolatik lau itxi beharko litzuzke Seaskak heldu den eskola sartzean.

Hori dela eta, Seaskak deiturik, suprefetaren erabakiaren aurkako manifestazioa egin zuten otsailaren 2an, Hendaian. Battista Salaberri Hendaia auzapezak babesa eman zion mobilizazioari, eta arazoari aterabidea emateko Paueko prefetarekin harremanetan jarriko zela agindu zuen. Max Brisson UMP kontseilari nagusiak eta Frantxua Maitia Akitaniako kontseilari eta EEPko presidenteak ere larria iritzi diote suprefetaren erabakiari.

hizpide



Eskoletan bullying homofoboari aurre hartzeko giltzarriak jaso ditu Aitor Martxuetak bere tesian

‘Hezkuntza-ingurunean dibertsitate afektibo-sexuala aintzat hartzeko giltzarriak’ izenburuko doktore-tesia landu du Aitor Martxueta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, galdera batetik abiatuta: nola eragiten die heterosexual ez direnei beren joera afektibo-sexualagatik eskola-esparruan jasandako diskriminazioak? Ikerketa empiriko bat egin du Martxuetak eta horretarako joera afektibo-sexual ez-normatiboa duten 119 lagun elkarrizketatu ditu, denak LGTB mugimenduko eta EHGAM, GEHITU eta Bost Axola elkarteetako kideak. Bestetik, Euskal Herrian, Espainian, Erresuma Batuan, Europako beste herrialde batzuetan eta AEBetan gai honen inguruan egin diren ikerketak aztertu ditu. Elkarrizketetatik ondorioztatu duenez, “eskolan joera afektibo-sexualagatik diskriminazioa, jazarpena eta laidoak jasateak badu zerikusia gerora depresio- eta antsietate-maila handiagoa eta autoestimu eta afektu balantza apalagoa izatearekin”. Halaber, “jazarriak izan direla adierazten duten pertsona horiek berek laguntza eta onarpen handiagoa sentitzen dute familiaren eta ingurune hurbilaren aldetik, eta hobeto eta goizago onartzen dute beren joera afektibo-sexuala”. Nazioartean egindako azterketetan egiaztatu ahal izan du “bullying homofoboaren aurkako irizpideak ezartzen dituzten ikastetxeek eskola-giro egokiagoa lortzen dutela, ikasleak seguruago sentitzen direla eta, ondorioz, ongizate handiagoa sentitzen dutela”. Hortaz, Martxuetak giltzarri batzuk proposatzen ditu dibertsitate afektibo-sexualaren zaintza hobetzeko ikasgeletan, besteak beste curriculum inklusibo bat landu beharra, giza eskubideen errespetuan oinarritua eskola-inguru seguru bat bermatuko duena; era berean, proposatzen du formazioa ematea, irakasleei ez ezik, gurasoei ere; eta zenbait jarduera-ildo aurkezten ditu, hezkuntza-sistemako kide guztiek jokaera homofoboak saihesteko kontuan hartu beharrekoak.

‘Jakingarriak’ aldizkariak webgune propioa du

HUHEZIK sortua, *Jakingarriak* webgunearen helburua, modu sistematikoan, euskarazko dokumentu gaurkotuak eta berri-tzaileak eskaintzea da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako erronkei laguntzeko, eta bi etapa horietan kokatzen diren ikasle zein profesionalen zalantzei erantzuteko. Baita ere, aldizkaria daraman taldearen eta hartzaileen arteko harremana dinamikoagoa, interaktiboagoa, horizontala-goa eta aberatsagoa izan dadin.

Gaur egun kide hauek osatzen dute *Jakingarriak* aldizkariaren zuzendaritza, Elena Lopez de Arana zuzendariarekin batera: Oihana Elorzak, Iñigo Arteatsek, Idu-re Alonsok eta Miriam Txintxurretak.

Zuzendaritza taldeak Maite Goñi irakaslearen laguntza eta aholkularitza jaso du webgunea egiteko. Egin, berriz, MUK enpresak egin du webgunea, eta horretarako oinarritu da Wordpress plataforman. HUHEZIK Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren diru laguntza izan du webgunea egiteko.

71. zenbakia kalean

1985ean sortu zen *Jakingarriak*, Nerea Alzolak eta Mariam Bilbatuak atera zutenean, fotokopiaz, aldizkariaren lehen alea. Urteetan, EAeko ikastetxe guztietan banatu izan da, eta Nafarroako nahiz Ipar Euskal Herriko ikastoletan. 1.200 ale guztira. Hezkuntzako profesional askok idatzi dute aldizkarian urteotan. Hezkuntzan aldaketa eta berrikuntzak aurrera emateko HUHEZIKtik zabaltzen ari diren bideak aurkezten ditu urtarilean kaleratutako 71. zenbakiak.

izango da

Tuterako Argia Ikastolak bolondresak eskatu ditu Nafarroa Oinezen antolaketan laguntzeko



Tuterako Argia Ikastolak hartu du 2013ko Nafarroa Oinez jaia antolatzeko ardura. Hirugarren aldia da Nafarroako eremu ez euskaldunean dagoen ikastolak Nafarroa Oinez antolatzen duena, 1995ean

eta 2002an ere hala egin baitzuen. Aurtengo ekitaldia kiroldegia finantzatzeko baliatuko du Erriberako ikastolak.

Hala ere, ikastolen aldeko festa handiaren antolaketan laguntzeko bolondresen parte-hartzea eskatu du Argia ikastolak. Bakarka edo taldeka, egunean bertan txosnetan edo salmenta gunetan egoteko, edota Nafarroa Oinez baino lehen antolatzen diren edozein ekintzatan laguntzeko aukera zabaldu du. 28 urteko ibilbidea egin du ikastolak, eta zailtasun ugari aurkitu ditu bidean, baina ikasleek lanean jarraitzeko arrazoiak ematen dizkiete egunero, Anika Lujan ikastolako zuzendariak esan duenez.

'Historia 1492-1815' eskola-liburua plazaratu du Ikas pedagogia zentroak

Historia saileko bigarren atala plazaratu du Ikas euskal pedagogia zentroak: *Historia 1492-1815* eskola liburua. Bi liburukik osatzen dute argitalpena: irakasle-entzako gidaliburua eta ikasleek eskolan erabiltzeko liburua. Mano Kurutzarri Historia eta Geografia irakasleak zuzendu du lana, eta Seasko irakasle talde batek (horien artean, Maialen Bidegain, Alazne Petuya, Maite Erdozaintzi-Etxart, Maialen Hiribarren...) hartu du parte lehen zirriborroan. Ondoren, Xabier Zabaltza Historia doktore eta EHUko irakasleak eta Aines Dufauk gainbegiratu dituzte edukiak. Hizkuntza arloaren gainbegirada berriz, Xarles Bidegain euskaltzainak

egin du. Frantziako programan finkaturik dauden gaiak jorratzeaz gain, Euskal Herriko bizitzan garrantzia izan duten hainbat elementu ageri dira.

Amerikako aurkikuntza ofizialaren datatik Frantziako Iraultzaren osteko lehen urteak arteko epea hiru atal nagusitan dago banatuta liburuan: *XVI. mendea: Pirikundea, XVII. eta XVIII. mendeak: Monarkia absolutua eta 1789-1815: Iraultza eta Inperioa*. Aines Dufauk azaldu duenez, Euskal Herriko eta kanpoko gertakariak ezagupidea eskaintzea eta aztertzen den dokumentuari protagonismoa ematea izan dira liburuaren osaketan parte hartu dutenen xede nagusiak.

Loczy Institutuko ikastaroetan parte hartzeko aukera

Euskal Herriko Pikler-Lóczy Sareak jakitera eman duenez, Budapesteko Lockzy Institutuak formakuntza ikastaro bat antolatzeko eskaintza egin dio eta bertan parte-hartzeko aukera zabalik dago. Ikastaroa apirilaren 1etik 5era egingo litzateke, baina berau martxan jartzeko beharrezkoa da 15 laguneko talde bat osatzea. Hori dela eta, Euskal Herriko Pikler-Lóczy Sareak otsailaren 4a arteko epea zabaldu du ikastaroan parte hartzeko interesa duenak horren berri eman dezan.


Elhuyar Fundazioa, Europako zientzia-udalekuen sarean

Europar zientzia-udalekuak antolatzen dituzten beste erakunde batzuekin sortu den sarean parte-hartu du Elhuyar Fundazioak. Urtarrilean elkartu dira lehenengoz erakunde horietako ordezkariak Alemanian, eta datozen hiru urteetan Europako Komisioak finantzatuko duen proiektuaren ekintza-plana diseinatu eta adostu dute. Zientzia-udalekuak konektatu eta ezagutzak, jardunbide egokiak eta ikerketak partekatzea da sarearen helburua. Elhuyarrek lau urte daramatza 12 eta 16 urte arteko gazteentzat zientzia-udalekuak antolatzen.

GAIA

Mahai-ingurua

Espainiako hezkuntza-erreforma aztergai



Koldo TELLITU, Mikel ORMAZABAL, Aitziber MARTINEZ DE LAGOS eta Imanol ZUBIZARRETA.



Espainiako Gobernuak egindako hezkuntza-erreformaren proposamenak alderdi politikoen eta euskalgintzako eragileen ia aho bateko gaitzespena jaso du Euskal Herrian. 'hik hasi' aldizkariak hezkuntzaren komunitateko eragile nagusiak bildu ditu mahaiaren inguruan, hezkuntza-erreformaren edukiak sakon aztertu eta aurrera begirako aukerak eta estrategiak eztabaidatzeko. Imanol Zubizarreta EHIGeko lehendakariak, Aitziber Martinez de Lagos Sortzen-Ikasbatuazeko kideak, Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak eta Mikel Ormazabal Kristau Eskolako ordezkariak horri buruz esandakoak jaso ditugu hurrengo orrialdeetan.

G

Jose Ignacio Werten erreformak eskolaren autonomiari, curriculumari eta antolaketari eragingo dioten aldaketak proposatzen ditu. Has gaitzen autonomiatik. Zer nolako ondorioak izango lituzke lege berriak eskola bakoitzaren autonomian?

Imanol Zubizarreta (EHIGE): Lege honek botere nagusia zuzendariari ematen die, behintzat eskola publikoetan. Baina ez gaur egungo zuzendariari, baizik eta aukeratzeko sistema berri baten bidez administrazio zentralak edo autonomikoak izendatuko dituen zuzendariari. Zeren eta zuzendaria aukeratzeko ahalmena administrazioarena izango baita % 50ean, eta hezkuntza komunitateak gutxienez % 30 eta gehienez % 50 izango du. Bestalde, argi ikusten da gaur egun daukagun eskola-kontseiluaren papera aldatu egingo dela. Gaur egun eskola-kontseiluak, funtzionamendu kaskarra izan arren, nahikoa eskumen ditu hainbat gauza onartzeko: urteko plana, hezkuntza-proiektua, egutegia... Lege honekin eskumen horiek guztiak aldatu egingo dira eta zuzendariaren esku geldituko dira.

Beraz, zuzendaria goitik etortzen bada izendatuta, eta, berak baldin badu hainbat gauza erabakitzeko eskumena, administrazioarena izango da gauza hauek guztiak onartzeko ahalmena, eta hezkuntza-komunitateak baiezkoa edo ezezkoa esateko eskubidea baino ez du izango. Teorikoki autonomia handiagoa eduki arren, autonomia hori beste era batera ulertu behar da, hau da, dagoeneko ez dira eskolak autonomia izango dutenak beren hezkuntza-proiektua aurrera eramateko, baizik eta zuzendariak izango du boterea. Zuzendaria nor den, posible izango da aldatzea, baina, hasieran behintzat, arrisku hori dago. Gainera, zuzendariaren profesionalizazioaren bidetik jotzeko aukera ere ikusten da...

Aitziber Martinez de Lagos (Sortzen-Ikasbatuaz): Zehaztu beharko genuke zer ulertzen dugun autonomia gisa. Guretzat autonomia da hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea hezkuntza-

proiektuak garatzeko ikastetxea dagoen herrian egonda. Autonomiak esan nahi du ikastetxe horrek, herriaren zati gisa, erabaki behar duela zein hezkuntza-proiektu garatu nahi duen, baina herri osoari dagokio proiektua garatzea.

Iruditzen zaigu giroa baretzeko mahai ganean jarritako beste hitz bat dela autonomia, baina dekretuak berak argi adierazten du norantz bideratu nahi duen hezkuntza-eredua: merkatuen esanetara. Guk ez dugu horrela ulertzen hezkuntzaren xedea bera. Guk uste dugu hausnarketa askoz sakonagoa egin behar dela, eta ez sartu LOMCEk aipatzen dituen hitz zehatzetan. Irakurketa orokorragoa egin behar da.

Koldo Tellitu (Ikastolen Elkartea): Gure kasuan, estrukturalki, proiektuak egiten duen diseinua ondo dago, azken finean, titular nagusia ikastetxea dela zehazten du, eta zuzendaria haren tresna dela. Ikastoletan orain arte titular nagusia gurasoen kooperatiba izan da.

Bestalde, legeak planteatzen duen zentralitateak ukitzen du ez bakarrik gure herriko hezkuntza-legearen sistema, baizik eta ikastetxe bakoitzaren hautua.

Mikel Ormazabal (Kristau Eskola): Parte hartu dudan leku guztietan, LOMCEri buruz hitz egiterakoan, beti aritu gara gauza negatiboak azaltzen, baina uste dut garaia iritsi zaigula eta une aproposa dela azken 30 urtetan egin ditugun gauzak eta euskal hezkuntza-sistemak dituen hainbat gauza onuragarri mahai ganean jartzeko. Eta horrela has gaitzke erantzuten LOMCEk hemen ezarri nahi duenari. Badakit gauza asko hobetu eta konpondu beharrekoak ditugula, baditugu gabeziak ere (lege propio bat, kasu), baina arlo pedagogikotik ere ikus dezakegu autonomiaren kontrakoa dela Werten egitasmoa: helburuetan, hezkuntzaren kalitateaz duen ikuspuntuan, hizkuntza-eskubideetan, ebaluaketetan... Ez digu uzten ezta berdintasuna lantzen ere gure artean, eta hori ere autonomiaren barruan landu beharko genukeen zerbait da.

Arlo pedagogikotik legearen irakurketa

Espainiako hezkuntza-erreforma aztergai



Lau hizlariak mahai-inguruan, 'hik hasi' aldizkariaren bulegoan.

bat landu nahi izan dut. Autonomian zer ondorio dakartzkigun aipatzea garrantzitsua da, baina guretik, guk daukagunetik. Zeren ikasgaien edukiak ere Espainiatik ezarri nahi dizkigute, baina guk badugu euskal curriculum eder bat, Euskal Herritik kanpora egindakoa, partikularretik unibertsalera. Hor izugarritzko erronka bat dugu, eta hor landu beharko genuke gure autonomia.

Aitziber Martinez de Lagos: LOMCE dator eta orduan elkartzen gara denok. Ez gara kapazak, zuk diozunaren ildotik, elkartu eta planteatzeko eraikitzaileak diren gauzak. Badirudi kapazak garela ezezkoaren aurrean ados jartzeko baina ez eraikitze-ko.

Mikel Ormazabal: Baina baditugu horren adibideak eragileon artean!

Aitziber Martinez de Lagos: Noski baietz. Tresna asko ditugu, eta gu aspalditik

ari gara esaten behingoz gurea eraiki behar dugula, hezkuntza-sistema propio horren bidean pausoak eman behar ditugula. Baina kasualitatea da elkartzen garela eraso baten aurrean! Hainbat tresna ditugu eginda, goazen esertzera. LOMCE ez da bat-batean iritsi zaigun zerbait, beste hezkuntza-eredu baten bidean emandako beste pauso bat da. Aspalditik datorren zerbait da, aurreikusten genuen eta behin eta berriz esan dugu: goazen elkartzera eta erabakitzera zer hezkuntza-sistema propio nahi dugun, zein eredu, zein urrats eman behar dugun... Goazen eraikitzera.

Eskola-porrota gainditzea eta ikasleen emaitza hobekak lortzea aipatu dituzte erreformaren helburu bezala. Horrek aldaketak ekarriko ditu curriculumean eta ebaluaketa sisteman. Zein balorazio egiten duzue?

Imanol Zubizarreta: Ikasgaiak sailkatu egin dituzte: tronkalak, espezifikoak eta espezialitatekoak. Tronkaletan, edukia % 100ean Madrilek erabakiko du. Baita ebaluaketa-tresnak eta metodologia ere. Lehen Hezkuntzan astean 15 ordu izan behar dute ikasgai tronkalek, eta DBHn % 50a. Ikasgai espezifikoetan ere (gimnasia, erlijioa, artistika, atzerriko hizkuntza...), edukiak Madrilen erabakiko dituzte, baina administrazio autonomikoak eskumen gehiago izan du. Beraz, jada ez da % 35-65 izango, orain arte bezala. Orain nukleo gogorra Madrilek ezarriko du, eta bigarren mailako ikasgaietan eskua sartzeko aukera izango dute autonomiek. Horrek esan nahi du Espainiako Estatuko ikasle denek gauza bera ikasi beharko dutela, eta hainbat gai, orain arte curriculum propioan zeudenak, bertan beharra geldituko direla. Madrildik datorren edukia ikasten hasi beharko dugu. Argi dago

atzerapauso itzela dela hori.

Koldo Tellitu: Gure ustez, curriculumaren aurkakoa da lege-egitasmo horren erasorik handiena. Erasoa bi aldetatik dator: edukietatik eta ebaluazio-irizpideetatik. Edukietatik bakarrik baletor, uste dut asmatuko genukeela handik edo hemendik ihes egiten... Baina ebaluazio-irizpideak errematea dira. Ebaluazio-irizpideak harremana du curriculumarekin eta irakaskuntzarekin. Alde batetik, euskal curriculumari egindako eraso bat da, eta bestetik, irakaskuntzaren antolaketari egindako eraso bat. Azken finean, askotan esaten ari den bezala, akademia bihurtuko dira ikastetxeak, eta ebaluaketa hori ezartzen dutenean azterketa prestatzera baino ez dagoango eskolara jende asko. Espainiako Gobernuaren ikuspegitik, oso era inteligentean jokatu dute. Guztiz zentralista eta guztiz zentralizantea da egitasmoa.

Azpimarratu nahi dut zergatik den curriculumaren aurkakoa eraso larriena: euskarari egiten zaion eraso ere hortik datorrelako. Ondorioz, ikastetxeen autonomia-rena hortik ere badator. Gure edukiak landu nahi baditugu, ikastetxeetan ordutegiaren zati bat eduki horiek lantzera eskaini behar da eta beste zati bat azterketak prestatzera. Irakaskuntza-prozesuan arazo izugarria da hori.

Mikel Ormazabal: Kontuan hartu behar dugu errebalida famatu horiek jarri ditzutela, eta garbi dago titulua lortzeko edo ikasten jarraitzeko derrigorrez gainditu behar direla errebalida horiek. Eta garbi dago azterketa horiek nondik etorriko diren jarrita, edukia eta abar. Garbi ikusten dugu gaur egungo bigarren batxilergoan zer gertatzen den. Hor zer egiten da? Gehienbat selektibitate prestatu. Horri begira dago, ez curriculumari begira.

Koldo Tellitu: Ipar Euskal Herrira joan behar da gara ikastera, zeren azken urteetan Iparraldeko ikastolek egin dutena hau da. Beraiek ez dute murgiltze-eredurik eta



urtetan egin dutena da zati bat prestatu bertako edukiarekin eta beste zati bat frantses estatuan dauden etsaminak gainditzeko.

Aitziber Martinez de Lagos: Oinarrian dagoena da hezkuntza tresna bezala eraikitzea, jendarte eredu konkretu baten garapena bideratzeko. Zein motatako pertsonak nahi ditugun hezi. Eta legeak esaten du merkatuaren eta konpetitibitatearen beharretara egokitutako pertsonak sortu nahi dituela. Hortaz, ez dago ikaslearen garapenean zentratua. Hori da, nire ustez, erasorik larriena, orokorrean.

Mikel Ormazabal: Okerrena da hezkuntza ideologizatzea, helburu politikoak jartzea abiapuntu edo lehentasun. LOM-CEk ezartzen dituen hezkuntzaren helburuak hain dira kaskarrak, hain hankamotzak... Hazkunde ekonomikoa, merkatuaren lehiakortasuna, enplegu profesionalari erantzuna ematea... hori bakarrik lortu nahi baldin bada, zer egingo diogu bada? Emaitza akademikoetan oinarritutako kalitatea bultzatuz, zer nahi dute egin? Ikasleak banatu, klasifikatu. Emaitza akademiko txarrak dituztenak lanbide heziketara bidaliko dituzte. Orain ere lanbide heziketa bigarren mailakoa bihurtu nahi dute, duela 50 urte bezala?

“Administrazioei eskatu behar zaiena da hezkuntza-sistema osoa arautzen duen lege berri bat. Adostuak daude lege horren oinarriak: hizkuntza-ereduen aldaketa eta gure curriculumaren garapena”

- KOLDO TELLITU-

“Bada garaia Jaurlearitzak gurea defendatzeko. Zergatik? Hoberenatarikoa delako”

- MIKEL ORMAZABAL-

Espainiako hezkuntza-erreforma aztergai



“Marra gorriak ipini behar dira. Hezkuntza-komunitatean, politikan eta gizarte mailan adostu, eta gainditzen badira, denok aurka egin”
- IMANOL ZUBIZARRETA-

“Ausardia, borondatea eta herri bezala pentsatzea behar dira alternatiba bat eraikitzeko”
-AITZIBER MARTINEZ DE LAGOS-

Gu hemen gizarte inklusioan ari gara lan egiten, ikasleei 16 urtera arte esparru berdinean lan egiteko aukerak emanez...

Pentsatzen dute zentralismo horrekin lortuko dituztela gauza guztiak. Nik berriro diot: hor dauzkagu adierazleak, eta Europakoekin eta beste autonomietakoekin egindako konparaketak. Bada garaia Jaurlaritzak gurea defendatzeko. Zergatik? Hoberenatarikoa delako. Baina lege berriarekin nongelditzen da berrikuntza pedagogikoa? Zertarako nahi da berrikuntza pedagogikoa, helburua emaitza akademikoa lortzea baldin bada? Ez bada sozializazioa, ekitatea, familiaren giroa?

Aitziber Martinez de Lagos: Ebaluazio-sistema hau guztiz baztertzaila da: batzuek balio dute eta besteek ez. Bizentzutan da baztertzaila: zentralizazioa sustatzen du, eta jendarte eredu kapitalista eta patriarkalaren biziraupena bultzatzen du.

Imanol Zubizarreta: Ikastetxeen sailkapena egiteko bidea ere zabaltzen du. Legean argi azaltzen da aukera dagoela bakoitzak nahi duen zentroa egiteko, hau da, bikaintasuna lortzeko aukera eta baliabideak izango ditu. Esaterako, ikasleak onartzerakoan puntuazioaren % 20 jartzeko aukera izango du. Ikastetxe batek ikasle onak bakarrik nahi baldin baditu, hori egiteko egitura antolatu dezake.

Koldo Tellitu: Mikelek esan duen moduan, hemengo emaitzak oso gertu daude ipinitako helburuetatik, eta era espezifiko batean landu barik joan dira lortzen. Baina ulertu behar dugu hau ez dagoela Euskal Herrira bideratuta, Espainia osora baizik, eta Espainian mezu horrek egin dezake bere bidea. Azken finean, nahiz eta batzuk esan Estatu Batuetako eredu dela, Alemaniako eredu dela bete-betean. Wertek egin duena da Alemaniako ereduaren ezaugarri nagusiak hona ekarri. Eta mezu argia jarri du mahai gainean: hau da ikasle onak lortzeko bidea. Espainiako zenbait esparrutako emaitzak ikusita, uste dut mezu horrek bere bidea izan dezakeela. Baina hemen ez du heldulekurik. Guk emaitza onak ateratzeko bide hori egin dugulako jada.

Legeak nola eragin diezaioke euskal ikastetxeetako proiektu pedagogikoari?

Imanol Zubizarreta: Guk dauzkagun ezaugarri batzuk Mikelek aipatutakoak dira: inklusibitatea, dibertsifikazioko taldeak... Horregatik lortu dugu eskola-porrota txikiagoa izatea. Porrot batetik datozen ikasleei DBHn talde txikietan ikasten jarraitzeko aukera emateagatik. Legearekin garbi dago ez dela posible izango martxan jartzea horrelako neurriak. Oso zaila izango da ezaugarri horiekin eskola bakoitzak egitea bere hezkuntza-proiektua, zeren eta gehiena goitik etorriko baita nahikoa erabakita.

Mikel Ormazabal: Guk aberastasuna daukagu berrikuntza munduan. Eragile guztiok elkarrekin ari gara, kontsentsu handia dago, euskal curriculumarekin ere lortu zen kontsentsua, nahiz eta gero martxan jartzerakoan adostasun hori apurtu den pixka bat, zoritxarrez. Baina ahalegin hori egin izan da hizkuntzaren arloan. Kontseiluaren inguruan dokumentu bat osatu zen, euskalduntze prozesuaz, errealitatetik idatzita, ez teorikoki hasita. Zergatik ez indartu hori berriro, eta euskal hezkuntza-lege propio bat ondo egin; badaugu euskal hezkuntza

sistema publikoaren lege bat baina uste dut osatu beharko litzatekeela beste ezaugarri batzuekin. Badauzkagu hainbat baliabide, legeak ere eskumenak ematen dizkigu nolabait guk ere gurea propioa antolatzeko. Guk dauzkagun adierazleak dira gure aurkezpen txartela.

Imanol Zubizarreta: Orain arte eskola bakoitzak eduki du aukera curriculum propioa jartzeko bere hezkuntza-proiektuan. Zati batean behintzat. Baina argi dago honekin ez dela posible izango. Hainbat ikasgaitan dena dator goitik. Hori ikusita, oso zaila izango da eskola batek bere hezkuntza-proiektu propioa izatea. Ez dauka aukerarik hori aurrera emateko, dena egin da etorriko zaiolako.

Aitziber Martinez de Lagos: Hezkuntza eskubide unibertsal bezala ulertzeko moduan ere aldatetak etorriko direla aurreikusten dugu. Murrizketei eta abarri gehitu beharreko beste urrats bat da. Pertsona guztien aukera berdintasuna ez dago ziurtatuta eta ez da egongo ebaluazio sistema hori dela-eta. Eta ez dugu ahaztu behar segregazioaren kontua. Hor ere atzerapauso izugarria ematen du. Aukera berdintasuna ez bermatzea urte askotako atzerapauso ikaragarria da.

Koldo Tellitu: Ikastetxe batek nahi badi bere hezkuntza-proiektua aurrera eraman sekulako lana egin beharko du, bestela ezinezkoa da. Guk hemen ohitura dugu horrelako gauzak egiten, baina azken urteotan izan dugun markoa askoz hobea izan da, eta errazagoa izan da lan hori egitea. Hau indarrean ipintzen bada, hezkuntza propio bat nahi duen ikastetxeak sekulako lana egin beharko du.

Imanol Zubizarreta: Oso baldintzaturata egongo dira, Lehen Hezkuntzako 3. mailan ebaluaketa bat eta 6. mailan beste bat izango dutelako. Eta DBHn beste bat. Horri aurre egiteko badakizu zer egin behar den, eta baliabideak horretara jarri.

Koldo Tellitu: Ebaluaketari buruz le-

geak esaten duena ez dute aldatuko, nire ustez. Hizkuntzarena, susmoa dut baietz... Baina ebaluaketarena ez. Pibote bat delako. Ikastetxea kontrolatzeko bideak bi dira: edukiak eta ebaluaketa. Edukien bidez kontrolatzea zailagoa da, hor zirikitu askoz gehiago dagoelako, baina ebaluaketarena arriskutsua da.

Hezkuntza-eredu propioa garatzeko zein aukera dago? Badago alternatibarik?

Imanol Zubizarreta: Gutxi. Arazo politiko bihurtu da azkenean. Madrildik datozen erasoek konponbide bat dute: Auzitegi Konstituzionala. Hemen behar dena aldatu politikoa da.

Mikel Ormazabal: Amets egin nahi dut eta sinetsi, oinarriko curriculum a egin genuen bezala, hari jarraipena eman eta haur toreatzen asmatuko dugula. Ditugun eskumenak hartu eta hezkuntza eragile guztiok elkartu, soinu gehiegi egin gabe baina adostasunera heldu, eta departamenduarekin lan egin. Ez dakit inozoa naizen, baina nahi dut sinetsi badaukagula hori egitea autonomia bezala.

Aitziber Martinez de Lagos: Ausardia, borondatea eta herri bezala pentsatzea behar dira alternatiba bat eraikitzeko. Eragileak eta elkarteak ez dira helburu, tresna baidak. Hori denok argi izan eta herri honek zer hezkuntza sistema eredu behar duen sakon gogoetatu behar dugu—hausnarketa horiek eginda daude, eta horren baitan tresnak sortuak daude—. Badirudi erasoan aurrean ezin dela ezer egin, baina Euskal Herrian ibilbide oparora dugu eta ezinezkoak ziruditen gauza asko sortu izan dira: ikastolen mugimendua, ikasle mugimendua, sare publikoan euskararekin egindako ibilbidea, aisialdian eta unibertsitatean...

Mikel Ormazabal: Nik ez nuke sailkapenik egingo, norik egin duen gehiago, nor gutxiago... sistemaren erdigunean ikaslea dagoelako. Ikasleari eman behar diogu

erantzuna, ez politikari. Ikasleak ditu eskumen guztiak, berdinak.

Aitziber Martinez de Lagos: Ados, bada goazen hartzera oinarri hori ikaslearen hobebereaz. Zer egiteko gai gara edo prest gaude egiteko?

Koldo Tellitu: Eragileen artean zer bait adosteko, gutxieneko adostasun politikoa behar da. Guk bakarrik ezin dugu ezer egin, legeak baitaude. Derrigorrez behar da gutxieneko adostasun politikoa; gu gai baldin bagara adostasun bat lortzeko, politika mailan ere gauza bera egin behar da. Bestela oso zaila ikusten dut babes politikorik gabe, esaterako, eskola batek intsumisio jarrera hartzea legearen aurrean.

Aitziber Martinez de Lagos: Ados, baina nola lortuko dugu aldaketa politikoa? Agian gu mobilizatzen. Prest gaude eraso honen aurrean mobilizatzeko hemen gauden eragileok? Azken finean gu gara aldaketa politikoa eragingo duten eragileak. Hezkuntza komunitatea zain dago, ea zer gertatzen den galdezka, ez garelako atera gurea aldarrikatzera. Bulegoetan egingo dugu lan hori edo kalera aterako gara?

Koldo Tellitu: Nire ustez, estatuarekin konfrontazio politiko sakon batera garamatza honek. Eta gakoak izango da eragileok gai izatea alderdiei eta botere politikari hori sinestartzeko. Egoera zehatz batean etorri da hau: denbora darabagu lege berri bat behar dugula aldarrikatzen, eta denok ados gaude hizkuntza-ereduan eta curriculumean. Finantzazio alorrean baino ez ditugu ikuspegi ezberdinak. Legegintzaldiak pasa dira, eta EAEn dugun gabeziarik handiena da ez dugula corpus juridiko bat horren aurrean benetan sakonean egiteko. Hori aldarrikatu behar dugu, batetik lehendik genuen eskakizuna delako, eta, bestetik, Wertzen aurrean askoz ere gauza sakonagoa ipini behar dugulako orain.

Ikastetxe bakoitzak oso argi eduki beharko du zer apustu egiten duen: intsumisioa, pase forala... herri honek hamaika

Espainiako hezkuntza-erreforma

formula garatu ditu. Baina kontuz, erasoak erasoak dira. Ikastolako ikasle izan naiz, eta gogoratzen dut Villar Palasí legea atera zenean, ikastolan geundenok ez genuela titulurik izango zabaldu zela eta nire ikasgelako ikasleen erdia joan zen. Erasoa erasoak dira. Horren aurrean ausardia behar da. Lehenik eta behin, eragile guztiok lortu behar dugu lege berri baten inguruan botere politikoa baldintzatzea, eta hortik aurrera bakoitzak bere ikastetxean babes gehiagorekin jokatzeko era batera edo bestera.

Ikasleak espainiarrearen legearen xedeen artean dagoela aitortu du Wertek berak. Ikuspegi soziolinguistikotik zer ondorio izango ditu erreformak?

Imanol Zubizarreta: Euskara hirugarren mailakoa izango dela esan du ahoz, baina ez du legean jartzen.

Mikel Ormazabal: Ikastetxe bakoitzak egingo balu hizkuntza-proiektu koherente bat, lege honek ez lioke eraginik sortuko, edo behintzak ikastetxeak izango luke barne indarra aurrera jarraitzeko. Ikusirik beste autonomiek ez daukatela ezer eginda, guk ibilbide garrantzitsu bat daukagu egin da azken 30 urtean, emaitza izugarri onak lortu dituena, eta are hobekia ateratzea nahi dugu. Kontsentsu bat egon da euskalduntzearen inguruan, badira desadostasun batzuk baina uste dut lan handia eta ona egiten ari dela. Hizkuntza-proiektuari ematen diogu garrantzia, eta gizarteak epaitu egingo gaitu, orain arte epaitu egin gaituen bezala. Ondo egiten badugu, aurrera. Ni horretan oinarritzen naiz. Agian berri ere inozoa naiz eta ametsetan ari naiz.

Imanol Zubizarreta: Legeak argi dio oreka egon beharra dagoela gaztelania eta euskararen artean. Baina zer da oreka? Presentzia berbera izango dutela gaztelaniak eta euskarak? Garbi dago gure esperientziatik horren ondorioak zeintzuk diren.

Aitziber Martínez de Lagos: Kontua da hastapenetik ez dagoela orekarik bi hiz-

kuntzen artean. Oreka egon behar du zertan? Ordu kopuruan? Eta horrek ekarriko du oreka emaitzetan ere? Hori ez da egia. Gutxiagotua den hizkuntzari ordu gutxiago eskaintzeak ez dauka inolako zentzurik.

Koldo Tellitu: Legean ez dute zehaztu nahi izan zer nahi duten. Bota egin dute eta kitto. Baina interpretazio sakon bat egin nahi badugu, zer ari dira jartzen mahai gainean? Guk hemen argi duguna da gainditu egin behar dugula hizkuntza-ereduen planteamendua, eta Kontseiluan landu genuen proposamenak helburu hori du. Justu hori guztiz barneratuta daukagunean eragile guztiok, etortzen zaigu Madrilgo proposamena, zeinak luze jota nora eramaten gaituen, B eredu orokortzera. Sinplifikatzen ari naiz, jendeak berehala uler dezan.

Wertek adierazpen lausok adierazten dute, nire ustez, hizkuntzaren kontuan amore emango dutela. Hori da nire interpretazioa. Helburu nagusia curriculumean baitute. Erasoa hortik dator, eta hizkuntzarena amu moduan erabiltzen ari dira jendea horretan zentratzeko, eztabaida horretan sartu eta bestea isilarazteko. Horrek ez du esan nahi tentuz ibili behar ez garenik. Eta horren aurrean ere esan behar dugu ezinezkoa dela hemen aplikatzea, hemen gaur egun daukaguna jada gutxi delako guretzat.

Alderdi onik ikusten diozue lege-egitasmoari?

Imanol Zubizarreta: Zirriborro batek bestera egongo ziren hobekuntza batzuk, baina ikusita nondik hasten garen, ez.

Aitziber Martínez de Lagos: Guk ezin diogu alderdi onik ikusi. Batetik, ez delako hezkuntza komunitatearekin hitz egin, alderdi politiko baten zirriborro bat da, estatu mailan eta herri honi inposatzen zaiona. Arlo pedagogikotik ere ez, ez dagoelako hezkuntza-komunitatean eztabaidatua. Eta are gutxiago da herri honetatik eta herri honentzat sortua, gure ezaugarriekin, baizik eta kanpotik ezarritakoa da, eta ez ditu

dauzkagun eskumen gutxi horiek ere errespetatzen.

Imanol Zubizarreta: Eskola publikoaren aldetik, erlijioaren trataeran eta beste kontu batzuetan ere kriston atzerapausoa da.

Aitziber Martínez de Lagos: Murrizketak jarri dituzte krisi ekonomiko baten aitzakipean, baina gero momentu batean pertsona batek ez badu A eredu ikasteko aukerarik administrazioak zuzenean ordainduko dio sare pribatuen plaza. Horretarako badago dirua.

Koldo Tellitu: Memoria ekonomikoa falta zaio legeari. Baina egiten duten planteamenduarekin zertarako behar du memoria ekonomikoa? Irakaskuntza merketuko du, hori ziur. Sistematik aterako du jendea oso azkar.

Zein enplazamendu egiten diezue Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari?

Imanol Zubizarreta: Berreskuratu dezala duela hiru urteko proposamena. PSE-EEk jarritako esperientzia horiek [3 elekoak] hiru urterako ziren eta orain ebaluatu beharko dira. Bitxia da, baina beste gobernu batek egin beharko du ebaluaketa hori. Nahiz eta hiru urte galdu, orain da momentua planteamendu hura berreskuratzeko, adostasun handia zegoelako, eta mar txan jartzeko.

Koldo Tellitu: Madriletik datorren eraso honek ez du zertan gure ibilbidea baldintzatu. Jaurlaritzari eta administrazio guztiei eskatu behar zaiona, gure ikuspegiatik, da hezkuntza-sistema osoa arautzen duen lege berri bat. 2013an gaude eta oraindik ez dugu lege hori. Eta daukagun paktua agortua dago orain dela 20 urte. Adostua dago lege horren oinarri nagusiak zeintzuk izan behar diren: hizkuntza-ereduen aldaketa eta gure curriculumaren garapena. Finantziarioaren alorra dago eztabaidatzeko, publiko-pribatua.

Imanol Zubizarreta: Lege hori ados-

GAIA

MAHAI-INGURUA

Espainiako hezkuntza-erreforma aztergai



Sortzen-lkasbatuaz, Kristau Elkarteak, EHIGE eta Ikastolen Elkarteak ordezkariek euskal hezkuntza-sistema osoa arautzeko legea eskatu diote Jaurlaritzari.

teko arazo bera daukagu. Madriletik datoren legea beti egongo da gainetik.

Koldo Tellitu: Konfrontazio politikoan sartzen gara.

Imanol Zubizarreta: Marra gorriak ipini behar dira. Adostu hezkuntza-komunitatean, politikan eta gizarte mailan zeintzuk diren marra horiek. Eta gainditzen bada, denok aurka egitea, politikoak barne.

Mikel Ormazabal: Murrizketak aitzakia hartuz, ez ditzagun murriztu hainbat planteamendu, PSE-EErekin kolokan geratu direnak: berrikuntza, inklusioa, zailtasunak dituzten ikasleekin lan egitea... Daukagun dirua hobeto erabilita, murrizketarik egin gabe jarraitu dezakegula uste dut, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu nioke daukaguna ondo erabiltzea.

Aitziber Martinez de Lagos: Legea eskatzea agian berria da, baina berriro ere Oinarrizko Hezkuntza Akordioa gogora ekartzen dut, hori da kontsentsurik zabalena lortu zuena. Hor ez da bakarrik hizkuntza, curriculum eta finantziarioak hitz egiten –gainera, finantziarioarena badago definitua, publiko herritarra izan behar duela esaten du, eta nik uste dut hemen gaudenotatik asko ados agertu ginela–, legearen oinarriak zeintzuk diren ere markatua dago akordio horretan. Hortik abiatutako eta Euskal Herri osorako pentsatutako lege batekin, ados. Bitarte horretan zer egin? Bulego batean negoziatzen ibili behar gara edo herri bezala pentsatu eta herriz herri joan ikastetxeetan tresna eraikitzaileak martxan jartzen? Bide horretan egin dezakegu Oina-

rizko Hezkuntza Akordioak jasotzen duena.

Horrez gain, ez daukagu gunerik hezkuntza-sistema propioaren inguruan hausnartu, eztabaidatu eta proposamen berriak planteatzeko. Agian gune hori sortu behar dugu. Administrazioetatik gaindi. Agian orain da momentua herri bezala pentsatu eta eragiteko.

Koldo Tellitu: Jaurlaritzarentzat Werten erasoak estrategikoki pagotxa da. Horren aurka jo besterik ez badu egiten, oso eroso egongo da Jaurlaritzak. Guk eragileok egin behar duguna da erasoari erantzuteaz gain, lehendik pendiente zeuden hainbat konturi heltzera behartu Jaurlaritzak. Bestela aukera paregabea du beste lau urte ezer egin gabe pasatzeko.

pilar aristizabal



ELKARRIZKETA

Gasteizko Irakasle Eskolako irakaslea.

‘Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan’ tesiaren egilea

“Gizarte parekide bat ala baztertzaile bat eraiki, handia da eskolak duen erantzukizuna”

Gasteizko Irakasle Eskolako zuzendaritza-taldeko kide da Pilar Aristizabal gaur egun, Ikasketa Planen zuzendariorde. Haren belaunaldiko askoren antzera, sexuaren arabera bereizitako eskolan egin zituen lehenengo eskola-urteak, mojetan. Gero, institutu misto batean ikasi zuen, baina neskek eta mutilek curriculum desberdinak zituzten han ere: neskek "Hogar" izeneko irakasgai bat zuten. Garai hartan, Sekzio femeninoan parte hartu behar zuten neskek, ama izateko prestatu behar baitzuten beren burua. Bizipen horiek genero-rol eta estereotipo batzuk ekarri zizkieten, beste askori bezala, gero apurka-apurka deseraiki behar izan duen ikuskera bat.

Alabaina, gizarteak, oro har, eta hezkuntza-sistemak, zehazki, frankismoko eskoletako zama jaso dute oinordetzan. Gaur egun irakasle eskoletatik ateratzen diren irakasle berriek nesken eta mutilen arteko berdintasunen aurrean kontzientzia argirik ez dutela ikusi zuen Aristizabalak, eta berdintasunaren erronkari aurre egiteko prestakuntza nahikorik ez dutela. Irakasle eskoletako ardurua soziala handia dela ikusirik, bere tesia gai horren inguruan egitea erabaki zuen. 'Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan: Gasteizko Irakasle Eskolaren kasua' izenburua du tesiak, eta hango ikasleek berdintasunean oinarritutako formazioa jaso dezaten eta berdintasunean oinarritutako irakasleentzako emateko gaitasunak eskura ditzaten du helburu. Ikasleek eta irakasleek berdintasuna nola hautematen duten aztertu du, eta, formazioa hobetzeko, hainbat proposamen jaso ditu. Tradizioari ere begiratu dio, eta Euskal Herrian eta Europan historian zehar eredu parekideak edo diskriminatzaileak garatu diren aztertu du. www.ehu.es/argitalpenak webgunean irakur liteke tesia osorik.



Nola landu da, historikoki, generoa irakasleen formazioan?

XVIII. mendearen amaiera arte, ez da izan hezkuntza-sistemarik. Beraz, irakasleen formaziorik ere ez zegoen. Irakasleen formazioa hezkuntza-sistemarekin batera hasi zen, Frantziako Iraultzaren ondoren. Irakasleek zer ikasi behar zuten arautzen hasi ziren orduan, baina gizonezkoak hartu ziren erreferentzia gisa. Maistren formaziorik ez da izan, eta, are gutxiago, generoaren ikuspegitik.

Emakumeak irakasle izateko prestatzeko zirenean, haien prestakuntza gizonenaren azpian zegoen. Aipu bat hartu dut, 1838koa, oinarritzko hezkuntzako eskola publikoaren arauditik: *"Muy conveniente sería que los maestros, por medio de sus mujeres unos y otros valiéndose de sirvientas idóneas, agregasen en el mismo edificio -aunque en salas separadas- una escuela de párvulos o una de niñas o la elemental de niños, pues para servir utilmente en una escuela de niños no se necesitan grandes conocimientos"*.

Europa osoan XVIII. mendean ezarri zen eta XIX. mende osoan iraun zuen eredu etxetiarra izan zen. Zertarako prestatu behar zen emakumea? Zerbitzatzeko, umeak hobeto zaintzeko, etxea garbi edukitzeko... Zientzia-ikasketak, matematika..., hori dena ukatu egin zitzaion emakumeari. Hezkuntza-sistemaren hasiera-hasieratik, emakumeenganako diskriminazioa izan zen nagusi.

XIX. mendearen amaieran, bigarren hezkuntzan edo unibertsitatean sartzea lortu zuen emakumeak. Espainian, 1885ean lortu zuen, emakumeen borrokari eta eskererari esker. Neskek eskolatzea arautu zuen

lehenengo legea, Moyano legea, 1859koa da.

Euskal Herrian, lehenagokoa da legea, 1780koa. Nafarroako Gorteetako lege bat da, 5-12 urte arteko neska-mutil guztiek eskolara joan behar zutela arautzen zuena. Garai hartarako oso aurrerakoa izan zen Nafarroako Gorteetako lege hori, eta superintendentearen figura sortu zuten, gainera, legea betetzen zela bermatzeko.

Irakasleen formaziorako eskolak ere arautzen zituen lege horrek; baina, ordurako, sortuta zeuden Nafarroako eta Gasteizko maistra-eskolak. Gasteizkoa, 1856an; eta Iruñekoa, 1847an.

Hego Euskal Herriari dagokionez, frankismoak eragin handia izango zuen XX. mendeko hezkuntza-sisteman generoaren ikuspegitik ere, ezta?

XX. mendeko lehen urteak oso mugituak izan ziren. Eskola berriaren korrontea sortu zen Europa osoan, eta hemen ere izan zen. Euskal Herrian, mugimendu pedagogiko handia izan zen. 1918an eta 1920an egin ziren Eusko Ikaskuntzaren kongresuak, eta oso planteamendu aurrerakoiak azaltzen dira kongresu horien aktetan. Lehen urte horietan eta Errepublikagaraian, hezkidetzak bultzatu zituzten: emakumearen emazte- eta ama-papera zalantzan jarri zen, eta curriculumean zientzia eta matematika sartzearen aldeko mugimendu handia izan zen. Horrez gain, emakumeek etxeko ekonomia ikasten zuten. Baina, frankismoarekin, atzerakada handia etorri zen.

Generoaren ikuspegitik, oso azkarrak izan ziren frankistak, emakumezkoak inplikatu baitzituzten euren aldarrikapenetan, faxismoak Italian egin zuen bezala. Sekzio femininokoek balio tradizionalak eta etxearen esparrua aldarrikatzen zituzten emakumearentzat. Elizak protagonismo handia hartu zuen, eta balio atzerakoiak indartsu sartu ziren.

Bien bitartean, haur-eskolen mugimendua sortu zen Euskal Herrian, eta emakumeek (Elbira Zipitriak, Julene Azpeitiak...) paper handia bete zuten. Metodologia berritzaileak erabili zituzten (Montessori, Pestalozzi...), eta haien lana oso garrantzitsua izan zen hizkuntzaren transmisiorako ere.

pilar aristizabal



“**Hezkuntza-sistemaren hasiera-hasieratik, emakumeenganako diskriminazioa izan zen nagusi**”

“**Formazioari dagokionez, irakasgairik ez egotea da gabeziarik handiena. Irakasleek egiten dute lana, baina oso bakarkakoa eta sistematizatu gabea izaten da**”

Gaur egun nola lantzen da generoa irakasleen formazioan?

Aurrerapen handiak egin dira. Esaterako, gaur egun, emakumeak ikasleen gehien-goia dira unibertsitatean. Eskola mistoa zabaltea ere oso aurrerapen handia izan zen, bere baldintza guztiakin. 1970eko legeko artikulua batzuk irakurriko bazenitu, harri-garriak egingo litzazkizuke: berdintasuna aipatzen da, berdintasuna izango dela, betiere, emakumearen ahalmena kontuan izanda.

Eskolan neskak eta mutilak elkartzea, berez, aurrerapen handia izan zen. Nahiz eta curriculumean ere desberdintasunak egon bazeuden. Ni lege horretan ikasitakoa naiz, eta, garai hartan, josi egiten genuen, adibidez. Etxeko politikaren barruan, bagenituen eduki batzuk, mutilek ez zituztenak.

Berdintasunaren izenean, ez ote dira “arau” bihurtu lehen “gizonezkoentzat” ziren irakasgaiak?

Laster ikusi zen eskola mistoa mutilen eskolen inguruan ezarri zela. Maskulinizatu egin zen erabat curriculumea. Neskek irabazi egin zuten, zientziak eta matematika eta beste hainbat irakasgai egiteko aukera izan baitzuten; baina galdu ere egin zuten. Esparru pribatuari zegozkion eduki guztiak galdu egin ziren.

Zein?

Zaintza, autonomia, besteak zaintzeak adierazten duen balioa... Nik uste dut balio onak direla guztiarentzat. Botoi bat josten edo bazkaria prestatzen jakitea gai garrantzitsuak direla uste dut.

Finlandian, gai horiek txiki-txikitatik lantzen direla ikusi ahal izan genuen. Sukaldariari bazkaria prestatzen laguntzen diote, lisatzen ikasten dute, sendabelarrei buruzko jakintza jasotzen dute, garbigailuak daude eskolatan, oheak...

Hori dena desagertu da hemen, eta gauza bera gertatu da patioko jolasekin. Nik mojen eskola batean ikasi nuen, eta patioan sokasaltoan ibiltzeko gure lekua genuen, zabuak genituen... Gaur egun, kirolaren eremuko elementuak daude eskolako patioan.

Sarri aztertu izan da espazioaren gaia. Patioetako eremu nagusiak mutilek

hartzten dituztela ikusten da, eta neskak sarri bazterrean gelditzen direla.

Askotan, mutilak dira jaun eta jabe patioan, eta neskak inguruan ibiltzen dira. Uste dut hausnartzeko eta behatzeko puntu garrantzitsu bat dela: zer gertatzen da jolas-orduetan? Nor norekin jolasten den, zer istilu sortzen diren, zergatik, nola konponatzen diren, puntu beltzak zein diren... Patioan zer gertatzen den aztertu behar dugu. Toki batzuetan, esperientzia interesgarriak daude gai horri buruz. Esaterako, txandak jartzen dituzte eremu bakoitza erabiltzeko, elkarrekin jolasteko arauak ezartzen dituzte...

Irakasleen formazioaren bilakaeran izan diren aurrerapen batzuk aipatu dituzu. Zein dira hutsuneak?

Desberdintasun biologiko batzuetan oinarrituta, horrek aitzakia eman du egoera baztertzailak sortzeko eta emakumea etxean uzteko. Tradizio horretatik gatoz, eta nabarmena da hori.

Formazioari dagokionez, irakasgairik ez egotea da gabeziarik handiena. Irakasleek egiten dute lana, baina, oso bakarkakoa eta sistematizatu gabea izaten da. Hasieran esaten zen plan berriekin nahitaezkoa izango zela sei kredituko ikasgai bat sartzea, irakasleen formazioan generoko edukiak sartu behar direla dielako legeak; gero, esan zen hautazko ikasgai bat izango zela, eta, azkenean, hori gelditu da. Gasteizko eskolan, ari gara ahalegin bat egiten gradu berriekin. Hezkidetzatza-batzordea sortu zen, eta uste dut lan polita egiten ari dela. Gure ikasleek hemendik ateratzen direnean zer jakin behar harko luketen pentsatu genuen, eta irakasgai bat prestatu genuen. Orain, sistema modular bat jarri dugu abian, eta, pixkana, modulu bakoitzean eduki batzuk txertatzen ari gara. Generoaren gaia finkatu eta sistematizatu egin behar da formazioan. Bestela, bakarririk sentitzen zara, irla bat bazina bezala.

Aurrera begira ere, atzerapen handiak ekar ditzake LOMCEk hezkuntza-sistemara. LOGSEk hezkidetzatza aipatzen zuen, lan du beharreko zehar-lerro edo balioen artean. Ikerketa feministak ordura arte sortu zuen ezaguera guztia kontuan hartzea planteatzen zuen lege horrek. Gero, LOErekin,



asko murriztu zen, eta, orain, LOMCekin, bertan behera geratu dira berdintasunaren esparruan izan diren ia aurrerapen guztiak.

Ikasleek berdintasunaz duten pertzepzioa aztertu duzu tesian. Nola hautematen dute beraiek gaia?

Ikasle gehienek gaindituztat ikusten dute auzia. Gaur egun hezkuntzan gai hau planteatzea lekuz kanpo dagoela iruditzen zaie. Gaur egun, emakumeen eta gizonen artean ez dago desberdintasunik, haien iritziz.

Zenbait ikaslek feministek egindako lana nabarmentzen zuten, hezkidetzari garrantzia ematen zioten. Irakasle direnez ardua berezia dutela kontuan hartuta, esparru horretan beren burua prestatu behar zutela ikusten zuten. Baina gutxiengo bat zen.

Irakasleek nola hautematen dute berdintasunaren auzia?

Irakasleek ez dute gaindituztat ikusten. Aipatzekoa da, ordea, parte hartu zuten irakasle gehienek kontzientzia dutela gaiaren inguruan, eta lantzen dutela beren ikastetxeetan; ez dakit, beraz, irakasle guztien iri-

tzia ordezkatzen duten. Auzia ez dagoela gaindituta ikusten dute hainbat egoeratan; esaterako, askotan, taldeak egiterakoan neskek idazkari lana hartzen dutela diote; edo laborategian mutilek esperimenduak egiten dituzte, eta neskek apuntatzen dute. Joera hori da oraindik ere.

Tesian jaso duzunez, kontziente ez izan arren, ikasleek genero-estereotipoak oso barneratuak dituzte, eta zailtasunak dituzte desberdintasunak eta egoera diskriminatzaileak hautemateko. Beraz, haien pertzepzioa eta errealitatea ez datoz bat.

Estereotipoen artean, neskak isilagoak garela zioten ikasleek. Lotsatiagoak eta beldurtiagoak garela neskak, eta mutilak ausartagoak. Eta parte-hartzea eskoletan desberdina izaten da horregatik. Ez dute aitortzen hori estereotipo bat denik, "horrela da" esaten dute.

Titulazioen aukeraketa da beste adibide bat. Tesian jaso dudak azterketa hau diplomaturetan egingenuen, 2009-2010ean. Gerorago aldatu da, baina orduan Gorputz Hezkuntza irakasleak, Haur Hezkuntzako-

ak eta Lehen Hezkuntzakoak zeuden. Haur eta Lehen Hezkuntzan gehienak emakumeak dira, % 92 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, berriz, % 70. Gorputz Hezkuntzan, alderantziz; mutilak % 71 dira. Joera honek jarraitzen du graduatan. Haur Hezkuntzako matrikulazioa 2010-2011n % 91koa izan da, eta % 87koa 2011-2012n.

"Zergatik aukeratu duzue titulazio hau?", galdetzen genien, eta "gustua" zen erantzuna. Beren iritziz tradizioak (emakumearen lehen zereginak beti zaintzarekin lotuta egotea: erizainak, emaginak...) eragirik ba ote zuen galdetzen genien, eta gustukontuak zirela erantzuten zuten beti.

Haur Hezkuntzako hezitzaile gehienak emakumeak dira; aldiz, unibertsitatean gizonezkoak dira irakasle gehienak. Zer irakurketa egin dezakezu, zergatik izan daiteke hori horrela?

Oso deigarria egin zitzaidan nola mantentzen den Haur eta Lehen Hezkuntzan emakumearen nagusitasuna. DBHn paretatzen dira; ziklo maskulinoetan eta goimailakoetan eta unibertsitatean gizonezkoak dira nagusi. Prestigio kontua da neurri-

pilar aristizabal

E

“Ikasle gehienek gaindituztat ikusten dute auzia. Gaur egun, emakumeen eta gizonen artean ez dago desberdintasunik, haien iritziz”

“Curriculumak osatzean, materialak aukeratzean, geure jarreretan, esku-hartzeetan... Uneoro betaurrekoak jantzita izan behar ditugu, genero-irizpidea presente izan behar dugu”

batean. Unibertsitatea zientziaren esparrua da, eta Haur Hezkuntzari dagokion esparrua, berriz, umeak zaintzea da. Sekulako lana egiten da Haur Hezkuntzan, baina ustea bestelakoa da, pixoihalak aldatu eta jolasten besterik ez direla aritzen uste du jendeak. Berriz ere zaintzearen irudiarekin lotuta dago emakumea.

Hezkidetza dela bidea diozu. Nondik abiatu beharko lirateke bai sistema (gizartean), bai eskola eta bai irakasle bakoitza bere gelan?

Lehenengo gauza sareak sortzea da, zeren norberak bakarrik gauzak egitea oso zaila da, beti hormarekin jotzea bezala da. Taldea sortu eskolan, gai honen inguruan lan egiteko gogoia duen jendearekin. Gero, behaketa-lana egin. Adibidez, espazioaren antolaketaren inguruko behaketa egitetik hasi gintezke: nola dago antolatua gure eskolako patioa? Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten du? Zertara jolasten dira batzuk eta besteak? Puntu beltzak aurkitu beharko genituzke. Zer egiten da edo zer ez da egiten jolas berriak sartzeko? Zer egiten da dagoen eremua denek erabil dezaten? Noren esku daude patioak?

Hausnarketa horretatik abiatuta, adibidez, gero eskolaren antolaketari begira diezaiokegu: zenbat irakasle daude ikastetxean? Zenbat emakumezko eta zenbat gizonezko? Zenbat ziklo bakoitzean? Eskola bakoitzean zer-nolako banaketa dago? Zergatik? Nor dira garbitzaileak, sukaldean lan egiten dutenak, jantokiko begiraleak, gizonak ala emakumezkoak? Egin dezagun argazki bat, nolabaiteko diagnostiko bat, esparru guztietan.

Gelan sartuta, nork bere gelan hausnarketa egin beharko luke materialen eta espazioen inguruan: erabiltzen diren ipuinetan, zenbat pertsonaia femenino daude? Eta zenbat maskulino? Zer ezaugarri dituzte? Zer dira, mutil ausartak eta neska ausartak? Zer roletan agertzen dira neskak eta mutilak? Egokiak al dira rol horiek, ala beste ipuin batzuk daude rol egokiagoak lantzen dituztenak? Curriculumean ere behaketa bera egingo dugu. Zer irakasten da eta zer ez? Zergatik irakasten da gauza bat eta beste ez? Nola agertzen dira emakumezkoak ikasliburuetan? Ikasliburuen gaia oso azter-

tuta dago genero-ikuspegitik, baina guk geure ikastetxean hartu ditugun ikasliburuetan zenbat emakume agertzen dira profesional moduan, eta zer lanbide egiten? Denak medikuak edo irakasleak dira, edo badaude emakume kamioilariak? Zer roletan agertzen dira gizonezkoak? Eskolan erabiliko ditugun ikasliburuak aukeratzeko garaian, kontuan izateko irizpide bat izan liteke generoarena. Zenbat emakume agertzen dira etxean, zenbat gizonezko agertzen dira etxean?

Hori ere niri bitxia iruditu zitzaidan, banekien azterketa asko zeudela ikasliburuen inguruan, baina, esplizituki, irudien bidez edo testuen bidez, emakume asko agertzen dira ama edo emazte gisa, eta gizonezkoak, berriz, sekula ez aita edo senargisa. Hori horrela da gaur egun oraindik guk ditugun ikasliburuetan? Hainbat jakintza-arlotan, zer asmakizun aztertzen dira eskolan, bakarrik lurrun-makina, ala hitz egiten da noizbait garbigailuaz eta horrek ekarri dituen onurez? Irakasleok zenbat emakume ezagutzen ditugu literaturgintzan ari direnak edo aritu direnak? Zenbat musikari emakumezko ezagutzen ditugu? Erabiltzen dugun hizkuntza zaintzen dugu? Zer ari gara transmititzen hizkuntzarekin, ikuspegi androzentriko bat? Ikuspegi hori gaindituta dago? Eskolan dagoen paisaia, bai irudizkoa bai hitzezkoa, nolakoa da? Zer poster ditugu, Disneyrenak? Zergatik ditugu poster horiek? Nolakoak dira nire esku-hartzeak, irakasle bezala, neskekiko? Eta mutilekiko? Berdin zuzentzen natzaie neskei eta mutilei? Zenbat denbora eskaintzen diot bakoitzari? Behaketatik hasi behar dugu, geure burua, geure jarrera behatu behar dugu; eta baita euren arteko harremanak ere; nola konpontzen dira? Zergatik sortzen dira gatazkak? Zer unetan? Zer erantzun ematen diegu? Gela jasotzeko orduan, nork jasotzen dugu, nori esaten diogu?

Behaketak hausnarketa ekarriko du, eta diagnosi bat egin ahal izango dugu. Eta, behin diagnosis egin ondoren, nondik jo genezake okerrak iruditzen zaizkigun jarrerak zuzentzeko?

Behaketak, adibidez, erakusten baldin badizu gelan dauzkazun posterrak ez direla

batere egokiak, eta aldatzen badituzu, dagoeneko esku-hartzen ari zara, eta pauso bat eman duzu. Taldetxo bat baldin badago eskolan, eta adostasuna eta errespetua baldin badago, zuk eska diezaiokezu beste irakasle bati zure gela behatzeko, bideoz grabatzeko, eta, ondoren, guztien artean ikusi eta, arazoak zein diren identifikatuz gero, guztion artean pentsa dezakezue zer eta nola aldatu. Behaketak berak erakutsiko dizue bidea.

Esperientzia ugari daude. Behaketa-gidak eginda daude, lan handia dago eginda; gero, egia da ez dela lan hori guztia ezagutzen, eta horixe dela daukagun arazo bat.

Genero-identitatearen eraikuntzan eskolak duen eragina aztertu duzu (familiaz, lagun-taldeaz eta hedabideez gain). Zer-nolako eragina du eskolak identitatearen eraikuntzan?

Eskolak garrantzia handia du generoaren eraikuntzan. Curriculumaren eraikun-

tzatik beretik, bizitzen dena ikasten da. Hezkidetza-balioetan hezi gintezke, edo kontrakoetan. Baina hezkidetza ez da plangintzan dugun gai bat bakarrik. Adibidez, elkartasunari buruz aritu arren, gero eskolako giroa erabat lehiakorra baldin bada, azken batean, eskolak balio hori transmititzen du, eta hezkidetza gaitan berdin. Hezkuntza-proiektuan eduki dezakezu hezkidetza landuko duzun gaien artean, baina, gero, jarrerak, materialak... kontrakoak baldin bada, ipuinetan beti mutilak neska salbatuko badu, adibidez, balio horietan ari gara ikasleak hezten. Curriculum osatzean, materiala aukeratzean, geure jarreretan, esku-hartzeetan... Uneoro betaurrekoak jantzi-ta eduki behar ditugu, genero-irizpidea presente izan behar dugu beti eskolako erabakiak hartzean.

Azkenean, gizarte parekide bat edo gizarte baztertzailer bat eraikitzeke orduan, zer-nolako erantzukizuna du eskolak?

Handia da eskolak duen erantzukizuna. Eskolan ordu asko pasatzen dira. Horregatik, luze hausnartu beharko genuke: zer-nolako neska- eta mutil-ereduak eramaten ditugu gelara? Zer nolako familia-ereduak lantzen ditugu? Orain dauden joeren artean, asko kritikitzen da nesken eta mutilen arteko diferentzia, hau da, ez da neska ala mutila, hor tartean hibridoak daude, eta horren alde daude joera berriak. *Continuum* hori oso kontuan izan behar du eskolak; eredu asko aurkeztea garrantzitsua da; ezaugarri batzuk eta besteak dituzten pertsona-ereduak azaltzea oso inportantea iruditzen zait.

Werten lege-proposamena aipatu duzu lehen; atzerakoa ikusten duzu genero-ikuspegitik?

Bai. Berdintasunaren alde egin den urratsik handiena eskola mistoa izan zela aipatu dut lehen; Wertek, ordea, segregazionistak diren ikastetxei diru-laguntza mantenduko die. Erabakia oso polemikoa izan da, horrek bermatzen baitu ikastetxe horiek jarraitu eta zabaldu egingo direla, eta, aurrerantzean, errazagoa izango da curriculumak neskei eta mutilei "egokitzea", eta arriskua dago neskak zenbait diziplinatatik urruntzeko.

Gainera, krisi-garaian gaude, eta bada-kigu nori eragiten dion gehien: langabezia gelditzen lehenengoak emakumezkoak izaten dira. Azkenean, baten batek gelditu behar du etxean, eta emakumea gelditzea oso ohikoa da. Arrisku handia dago atzera egiteko.

Dena den, nire ustez, gaur egun berdintasunari dagokionez iritsi garen puntura iritsita, ez dugu utziko atzera egiten. Baina kontuan izan behar dugu oso faktore murrak daudela. Indarrean dagoen legedian, adibidez, berdintasuna maila guztietan dago onartua; beraz, emakume batek ez baldin badauka aukerarik lana lortzeko, badi-rudi norberaren ardura edo arazoa dela. Kontratazio-garaian, oraindik ikusten da gizonezkoek baino espediente hobeia izanda ere, atzetik dauden gizonezkoak lanean egotea, eta emakumezkoak ez.

Espainiako gobernu eskuindarra erakusten ari den ideologiak beldurra ematen du.



zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

berrialaguna

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berria^{info}

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Iratxe Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

Honako ekarpen hau egin nahi diont
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,
G71006795 IFK duena:
Adierazi X batez zure aukera

- | | |
|--|---------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Urtean 100 € | <input type="checkbox"/> Urtean 200 € |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | Aldi batean <input type="checkbox"/> |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | Lau zatitan <input type="checkbox"/> |
| <input type="checkbox"/> Urtean beste kopuru bat: <input type="text"/> € | |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | |
| 100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da | |
| <input type="checkbox"/> Hilean 10 € | |

Sinadura

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

PARTAIDETZA:

gurekin bada, izango da (V)



**Marije APODAKA,
Gotzon QUINTANA
eta Bea UGARTE**

I.9 baliabidea: Elkarrizketarako eta behaketarako teknika

ELKARRIZKETARAKO TEKNIKA

Kontzeptua: *aurrez planifikatutako elkarrizketa formalean informazioa lortzeko teknika; elkarrizketa pertsona batek edo gehiagok egin dezakete, eta pertsona bat edo gehiago elkarrizketatu dezakete. Elkarrizketatuek duten informazioa eraldatzen edo sistematizatzen da, proiektu bat garatzeko elementu baliagarria izan dadin.*

Elkarrizketa motak

- Egituraturua: aurrez aztertutako eta ondo zehaztutako galderak egitean datza; erantzunak honelakoak izan daitezke:
 - Erantzun irekiak: elkarrizketatutako pertsonak askatasunez erantzuten die elkarrizketatzaileak egindako galderari.
 - Erantzun itxiak: elkarrizketatutako pertsonak aurrez zehaztutako erantzunen artean hautatzen du.
- Egituratu gabea: galderak nahiz erantzunak libreak dira.
- Mistoa: bi motatako galderak egiten dira.

Elkarrizketa prestatzea:

1. Solaskideak identifikatzea
2. Elkarrizketa egin aurreko harremanak
3. Elkarrizketa bera prestatzea
 - arazoei aurre egiteko estrategia bat zehaztea
 - elkarrizketaren gaia ondo ezagutzea
 - galdera-multzo egokia prestatzea

Elkarrizketa

Orduan heltzea

Hasieran:

- Gure burua aurkeztu.
- Zenbat denbora dugun galdetu, adetasunez.
- Oharrak jasoko ditugula adierazi.
- Laburpen bat emango diogula jakinarazi.
- Elkarrizketaren xedea gogoratu eta testuingurua mugatu.
- Galdera orokor bat egin, elkarrizketa sustatzeko eta elkarrizketaren garapen-esparrua zehazteko.

Elkarrizketaren garapena.

Elkarrizketaren amaiera:

- Izan ditzakeen jarraipenak prestatu.
- Laburpena emateko epe bat zehaztu.
- Laburpena berrikusteko epe bat adostu.
- Eskainitako arreta eskertu.

Elkarrizketaren garapena

- Ez egin galdera zuzenegiak.
- Pertsona elkarrizketatua gaitik alden ez dadin saiatu, baina eten gabe.
- Arreta erakutsi: pertsona elkarrizketatuak balioetsi egingo du.
- Elkarrizketa zuzendu, baina oso modu malguan.
- Erantzunak berak eman behar ditu (ez guk geuk).
- Giroa lasaitzeko uneak sortu.
- Aldian-aldean, gogoratutako arazoen balantzea egin buruz.
- Terminologia tekniko gehiegi ez erabili.
- Diskrezioz jokatu oharrak hartzerakoan, elkarrizketatuaren arreta galarazi gabe.
- Ez gairitu elkarrizketarako zehaztutako denbora (inoiz ez ordubete baino gehiago).

Elkarrizketaren ondoren

- Memoria edo txostena bidaltzeko epea errespetatu.
- Agindutako dokumentuak zehaztutako epean bidali.
- Elkarrizketan hartutako oharrak osatu eta laburtu.
- Elkarrizketatutako pertsonak berrikusitako txostena helarazi.

BEHAKETA

(Lizaso, Izarne eta Apodaka, Marije, 2008. Giza garapen psikologikoaren ereduak I. Bilbo: UEU. Unibertsitateko ikasmaterialak sustatzeko V. poltsa-saria (2006). ISBN: 978-84-8438-169-3).

“Behaketa” terminoak zera esan nahi du: "fenomeno baten obserbatze-ekintza, haren ezagutza zehatza jasotzeko metodo jakin batzuk erabiliz" (Larousse, 1981). Behaketan, ikertzaileak ez ditu fenomenoak aldatzen, agertzen diren bezala hartzen ditu.

Behaketa ekintza zientifiko gisa kontsideratua izango da honako baldintza hauek betetzen dituzenean:

- a. Ikerketako helburu bati erreferentzia egiten dionean.
- b. Fidagarritasun- eta baliozkotasun-probak gairitzen dituzenean.
- c. Sistematikoki planifikatzen denean eta kontrolatua dagoenean.

Behaketa sistematizatu edo kontrolatua prozedura bat jarraitu behar da, eta horren barruan (Fraissee-ren arabera) lau fase bereiz daitezke:

- I. Aztertzeo interesgarriak izan daitezkeen gertaerak aurkitu.
- II. Gertaeren artean egon daitezkeen harremani buruzko hipotesiak ezarri.
- III. Hipotesiak egiaztatatu.
- IV. Emaitzak landu eta interpretatu.

Behaketa sistematizatuaren barnean, zenbait mota daude; aipagarrienak, behaketa naturala eta laborategiko behaketa dira.

- a. **Behaketa naturalean**, eguneroko bizitzako egoeretan –eskolan...– banakoen portaera aztertzen da, portaera alda dezakeen aldagaririk sartu gabe.
- b. **Laborategiko behaketan**, berriz, kontrolatutako egoera batean behatzen du portaera (laborategian, baldintza jakin batzuetan). Adibidez, egoera berezia.

Behaketa sistematikoak baditu bere hutsunak: ez du portaera azaltzen, ezta kausa-efektu harremana ere. Gainera, behatzailearen presentziak portaera aldaraz dezake (nahiz eta ispilu baten atzean ezkutaturik egon, umeak suma dezake behatua izaten ari dela). Azkenik, behatzailearen presentzia duten egoera kontrolatuak artifizialeki izan daitezke.

I.10 zk.	Adostasuna bozketarik gabe
Deskribapena	Lau pertsonaz osatutako taldeetan, egoera gatazkatsu bat planteatuko dugu: taldeak erabaki bat hartu behar du, pisuzko bi argudio edo egiaztapenetan oinarrituta.
Teknika	Balioespen pertsonala, elkarrizketan oinarritutako eztabaida eta adostasuna.
Materialak	Bi kaxa, txartelak, arbela. I.10 tresna: adostasuna bozketarik gabe.
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> – Eztabaidak ez du oso negatiboa izan behar; elementu positibo bat bilatu behar da, jarrera desberdinak azaltzeko pisuzko arrazoiren bat, beste pertsonen jarrera ulertzen lagunduko diguna. – Egoeren arrazoi-ugaritasuna landuko dugu. – Gatazkaren prozesua, negoziazioa eta aukeren proposamena espermentatuko ditugu. – Prozesuan sortzen diren sentimenduen garapenean jarriko dugu arreta. – Bat etortzea bilatuko dugu, eta adostasuna defendatuko. – Gure jarrera arrazoituko duten argudioak bilatuko ditugu. – Deskalifikazioak saihestuko ditugu. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> – Deskribatutako egoera planteatuko dugu: ikastetxeko irakasleek ez dute etapa amaierako bidaia antolatuko, eta ez diete ikasleei lagunduko. – Pertsona bakoitzak bere balioespenak egingo ditu, eta irtenbide bat pentsatuko du. – Bi pertsonak adosten duten proposamen bat adostuko dute beste pertsona batekin. – Launaka, irtenbide bidezkoena eta eraginkorra iruditzen zaiena aukeratu dute, eta bi arrazoi emango dituzte irtenbide hori defendatzeko. Bozeramaile bat aukeratu dute. – Bozeramaileak irtenbidea planteatuko du. Dinamizatzaileak taldeko beste edozeini taldean eman dituzten bi arrazoi buruz galdetuko dio. – Egon daitezkeen irtenbideak jasoko dira, eta aurrera eramane daitezkeen edo egokiak diren eztabaidatuko da. Horrela utziko ditugu; EZ DUGU BOZKETARIK EGINGO. – Fitxan agertzen diren prozesuari buruzko galderak aztertuko ditugu. Hiru une garrantzitsuenak bereiziko dira, eta zabaldu edo aldatu egin daitezke. Oso garrantzitsua da gogoeta egitea eta sentimenduen zutabeetan nola sentitu zaren adieraztea. Jaso ditugun esaldiak adibide hutsak dira, eta ez du esan nahi zuen taldean hori gertatu denik. – Prozesua beste bi aldiz errepikatuko dugu, beste egoera gatazkatsu batzuekin. Adibidez: <ul style="list-style-type: none"> • Miranda de Ebrora joango gara bizitzera lan-kontuengatik, eta guztiok elkarrekin joan behar dugu! • Uda honetan Irlandara joango zara udalekuegara, eta bakarrik joango zara, gehiago ikas dezazun! • Ez dugu nahi zu gurekin gehiago etortzea; huts egin diguzu! • Institutua aldatu behar duzu eta zure neba joaten den institutura joango zara, zure lagunak hemen gelditu arren! 	

I.10 tresna. Adostasuna bozketarik gabe

Egoera gatazkatsu bat

Ikastetxeko zuzendaritzak jakinarazi du, irakasleen klaustroan planteatu ondoren, ikasturte honetan ez dela antolatuko ikasturte-amaierako bidaia, taldeari laguntzeko pertsona boluntariorik ez dagoelako.

Balioespen pertsonala

Zure ustez, zer arrazoi izan dituzte erabaki hori hartzeko?

Zer eskatuko zenioke ikastetxeko zuzendaritza-taldeari zure interesak defendatzeko?

Zure ustez, hezkuntza-elkarteko pertsona guztiak izan dituzte kontuan erabaki hori hartzeko garaian?

Negoziatzeko aukerarik badagoela uste duzu?

Gatazkaren aurrean egiten dudun proposamena:

Gaia binaka aztertu ondoren, irtenbidea honako hau litzatekeela uste dugu:

Taldearen ustez, irtenbiderik egokiena honako hau izango litzateke:

Eta arrazoibide hauek ematen ditu:

--	--

1.10 tresna. Adostasuna bozketarik gabe (jarraipena)

Prozesuari buruzko gogoeta:

	uneak	sentimenduak	ekintzak
1	Egoera ezagutzean	Horixe besterik ez genuen behar!	Lehenengo erantzuna
			Apur bat gehiago pentsatutako erantzuna
2	Arrazoiak bilatzean, irtenbideak proposatzean	Ez dago eskubiderik!	Arazoa azaltzen duen arrazoi edo zio bakar bat al dago?
			Jarrera eta iritzi desberdinak sortu al dira taldeko kideen artean?
			Norbaitek bere proposamena eta arrazoibidea inposatu al du? Nola iritsi zarete "taldeko irtenbidera"?
3	Proposatutako irtenbidean	Ikusiko dute!	Jarrerak hurbiltzeko amore eman duzuela uste al duzue?
			Proposamena negoziagarria dela eta gaiari buruz eztabaidatu daitekeela pentsatzen duzue?

LE/I.1.	Beldur gara? ▲
Deskribapena	Jarduera honetan, beldur izatean jolastuko gara, eta geure beldurretara hurbilduko gara. Beldurra defentsarako tresna bat noiz den eta oztopo bat noiz den –beldur sinbolikoetan oinarrituta dagoelako eta nire ekintza blokeatzen duelako– bereizi nahi dugu.
Teknika	Tunel beldurgarria.
Materialak	- LE/I.1 tresna: Hori beldurra!
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> – Irakasleok taldearen emozioetan erreparatuko dugu, bai eta emozio pertsonaletan ere. – Beldurraren oinarri fisiologikoa eta psikosoziala bereiziko ditugu. – Genero-rolari erreparatuko diegu jarduera osoan: barrura begiratzeko eta emozioak adierazteko erritmoak desberdinak izango dira nesken eta mutilen kasuan; horregatik, bai neskek eta bai mutilek emango duten urrats bakoitzean, errefortzu positiboak etengabea izan behar du. – Nahitaezkoa da errespetua eskatzea beste pertsonen egingo dituzten ekarpenen aurrean. Entzuteko eta azaltzeko arauak “hitzartuko” dira. – Beldurrak adierazterakoan, konfidentziasuna bermatu behar da; segurtasuna eta intimitatea bilatuko ditugu; inork ez du minduta sentitu behar. Hori da emozioei buruzko jardueren arau garrantzitsuena. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> – Irakasleak emozioei buruzko lana zertan datzan azalduko dio ikasgelako taldeari, beldurrera nola hurbilduko garen. – Beldurraren gaia planteatuko diegu, eta parte-hartzearekin duen erlazioa. – Jolas bat proposatuko diegu: tunel beldurgarria. <i>Beldurrezko film batean egongo bagina bezala, giro “beldurgarria” sortuko dugu. Izanaren institutua sortu beharko bagenu, zer aurkituko genuke? Nolakoa izango litzateke? Nor egongo litzateke? Nola usainduko luke? Zer soinua entzungo lirateke? Zer gertatuko litzateke? Ausartzen al zarete hori imajinatzen?</i> – Ikasleek bururatzan zaien gauzak esango dituzte, eta kontakizun beldurgarri bat osatuko dugu... ahalik eta beldurgarriena... – Saioa amaitzeko, LE/I.1 tresna emango diegu, eta isilik eta banaka beteko dute; nahi izanez gero, eraman egingo dute eta ez diote inori erakutsiko. – Amaitu dutenean, oro har, beldurra onuragarria noiz izan daitekeen eta oztopo noiz bihur daitekeen azaltzeko eskatuko diegu. 	
Sakontzeko	
<ul style="list-style-type: none"> – Blog bat: http://blog.eitb24.com/adimenemozionala/ – Rafael Bisquerra, Competencias Emocionales http://www.uned.es/educacionXX1/pdfs/10-03.pdf http://www.um.es/depmide/RIE/completa/documentos/21-1/21_1_art1.pdf – Elsa Punset, Guía para navegantes emocionales, http://www.elsapunset.com/articulos/info/libros-5-a/ – http://www.emozioak.net/ – http://www.hikhasi.com/fitx/fitxategiaJeitsi.php?id=193&emota=2&dmota=pdf – http://www.argia.com/multimedia/dokumentala/por-beldurra – http://www.youtube.com/watch?v=twajsQFti28&feature=youtu.be – http://www.rtve.es/alacarta/videos/archivos-tema/archivos-antologia-vida-calcetin-roto/1230248/ 	

LE/I.1 tresna: Hori beldurra!



Hauek dira nire beldurrak:

Baina hau da beldur gehien ematen didana:

Nire ustez, beldur horrek honetatik babesten nau:

Baina, bestalde, hau egitea eragozten dit:

Honako kasuetan agertzen dut beldurra:

Eta honakoetan ezkutatu egiten dut:

Parte-hartzea eta beldurra:



Eskua jasotzen dut eta ausartzen naiz...

Hitz egin nahi dut, baina...

Zertarako esango nuen hori! Orain,...

Horretan sartzen banaiz, gero...

Hobe ezer ez egitea, bestela...

Beldurra gainditzen dut... (Nola?)

ekarpenak

KIMUTX-ekin alai eta pozik

Kantua, ipuina, irudia, dantza eta jolasa uztartzen dituen materiala sortu dute, 0-6 urte bitarteko haurrak egunerokoan hezteko lagungarri izan dadin

Euskal mitologiaren bidez haur txikien eguneroko ekintzak modu alai, jostagarri eta maitekorrean gauzatzen laguntzea du helburu 'Kimutx: izaki mitologikoen eskolan jolastuz eta kantatuz' egitasmo berriak. Abesteko eta dantzatzeko ez ezik, irudimena eta ahozkotasuna lantzeko aukera ematen du ikasmaterialak.

Etxe-giroan hasi, auzolanean hazi eta herri-giroan osatu den proiektua da Kimutx. 0-6 urte bitarteko haurren heziketarako ikasmaterialaren inguruan zenbait hutsune nabaritzen zituzten bi ama gaztek abiatu zuten egitasmoa, Errenterian (Gipuzkoa). Materiala sortzen eta biltzen hasi ziren (kantuen hitzak eta doinuak, Kimutx pertsonaiari egokitutako ipuinak...), eta, hura zabaltzeko eta osatzeko, Euskal Herri osoko hainbat sortzailerengana jo zuten laguntza eske: bertsolariak, abeslariak, musikariak, idazleak... Beren ekarpena egiteko prest azaldu ziren, eta, lau urteko bidearen ostean, Durangoko Azokako Saguanbara aretoan aurkeztu zen elkarlan horren lehen emaitza: *Kimutx: izaki mitologikoen eskolan jolastuz eta kantatuz* CDa eta liburua.

Basoan bizi den iratxo bat da Kimutx. Lagunak ere basoan bizi dira; haurrak dira, eta pertsonaia mitologikoen izenak dituzte:



Aker, Jurdana, Nora, Laiene, Amalur, Tartalo eta Martin Txiki. Haien istorioen bidez euskal mitologiaren berri izateaz gain, egunerokoan egiten dituzten hainbat jarduera era dibertigarri eta jostagarrian landuko dituzte umeek: goizean esnatzea, arropa jantzea, eskolara edo haurtzaindegira joatea, jateko unea, jostailuak jasotzeko garaia, etxera bueltatzeko bidea, bainutxoia jolasean, ohera joateko deia, loaren aurreko beroa edota laguntasunaren balioa.

Etixerako zein eskolarako

Gai bakoitza abesti batekin lantzen da, eta ipuin batean txertatzen. Guztira, 11 kanta eta 7 ipuin biltzen ditu CD-liburuak, baina, horiek entzun eta irakurtzeko paradaz gain, beste hainbat aukera eskaintzen ditu: kanta guztien doinu musikatuari ahotsa jartzea; abestien partiturak (doinuekin, akordeekin eta kanten hitzekin) nor bere tresnekin erabili ahal izatea; irudien ebakinen bidez pertsonaiekin istorio berriak asmatzea; irudiak margotzea...

0-6 urte bitarteko haurrei eguneroko ekintza batzuk "modu alai, jostagarri eta maitekorrean gauzatzen laguntzea" da proiektuaren helburu nagusia, bai eta "ingurua ezagutzen lagunduko dien giroa sortzea" ere; eta, kantuak duen balioa eta dakartzan onurak kontuan hartuta oinarri nagusia horixe izan arren, beste baliabide batzuk ere erabiltzen dituzte, hitza eta irudia, besteak beste.

Etxeokoin eta lagunekin erabiltzeko baliagarria bada ere, orokorrean haurren inguruan bizi diren helduei laguntzeko asmoarekin eginda dago. Hortaz, beste hainbat eremutan ere erabil daitekeela uste dute sortzaileek. Esate baterako, eskoletako irakasleek eta ipuin-kontalariak erabil dezakete, haurrak euskal mitologia ezagutzen has daitezke; txotxongiloak sor daitezke irudien ebakinekin, eta haurrek zein helduek sortutako istorioak antzez ditzakete; ipuinetako pertsonaiak eta zenbait eszena nahi den moduan koloreztatuzko aukera dago; musika-eskoletan eta gainerako eskoletan

kantua eta gorputz-adierazpena lantzeko modua ematen du, eta partiturak ere biltzen ditu, musika ikasteko eta praktikatzeko.

Herritik herrira

Proiektuan parte hartu dutenen artean daude Erika Lagoma, Odei Barroso, Igor Elortza, Rosa Lertxundi, Jon Martin eta Mixel Aire bertsolariak, Arkaitz Miner, Amaïur Cajaraville, Mikel Ugarte, Jurdana Otxoa eta Odei Aztibia musikariak, Arrate Arozena, Nara Susperregi, Santi Romano eta Andoitz Antzizar abeslariak, Karmele Mitxelena eta Aitor Albisu letra-jartzaileak eta Nora Barroso doinugilea. Guztiek musu-truk lan egiten dute.


“Herrian sortutako” proiektua denez, lan guztia “herriari itzuli” nahi diote bultzatzaileek, proiektuaren zabalkundearen ahalik eta gehien lagunduz, eta, horretarako, Kimutxen txoko birtuala sortu dute (www.kimutx.eu). Kanta, doinu, ipuin, irudi eta material jostagarri zein didaktiko guztia esku-



Nora Barroso eta Nahia Alkorta *hik hasiren* bulegoan Kimutx materiala aurkezten

ratu daiteke gune horretan, berorren erabilera libre egiteko. Hala ere, proiektuak ekarri dituen gastuak ordaintzen lagundu nahi duten herritarrek badituzte horretarako zenbait bide. Horietako bat CD-liburua erostea da (500 ale argitaratu dira). Argitaratutako materialaren salmentarekin lortutako etekinak edizio-lana ordaintzeko eta proiektuarekin jarraitzeko erabiliko dira.

Egitasmo horri laguntzeko beste bide bat edukiak zabaltea, elikatzea eta ekarpenak egitea da. Horretarako, helbide elektronikoko bat ireki dute: kimutx@kimutx.eu. Azkenik, dohaintzen bidez proiektuari zuzeneko laguntza eman daskioke, webgunean horretarako prestaturiko atalean. Materiala itzuliz proiektua beste kultura batzuetara irekitzeko asmoa ere badute. •



esperientziak

“Orain, bueltak eman behar dizkidazu”

Supermerkatua Haur Hezkuntzako gelan

Leire PEREZ AZKONA
Sonia ALVAREZ PEREZ

Langraiz Okako (Araba) J.M. Barandiaran eskola publiko-ko ikasleen artean herriko supermerkatua ezagutzeko nahia sortu zen. Denda gure ikasle baten familiarena zen; beraz, erabaki genuen ekimen hori aurrera eramatea Haur Hezkuntzako 4 urteko bi geletan.



Haur Hezkuntzako bi irakasle gara, eta, gure esperientziak erakutsitakoaren arabera, jakin badakigu Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloan oso zaila dela arlo matematikoan azaltzen diren edukiak modu erakargarri eta interesgarrian lantzea eta ikasleen eguneroko bizitzan gertatzen diren esperientziekin erlazionaturik egotea. Horregatik guztiagatik, 2011-2012ko ikasturtean, hilabete eta erdiz, *Supermerkatua 4 urteko gelan* esperientzia gauzatu dugu.

Ikasturte osoan, 4 urteko bi geletako ikasleek arlo matematikoa ikuspuntu globalizatzaile batetik eta haietzako esanguratsuak ziren bizi-esperientzien bidez landu dute (jolas ugari sortu dituzte: antzara-jolasa, arrantza-jolasa...).

“Gure herriko lanbideak” lantzen genituen bitartean, ikaskide baten familiaren supermerkatua ezagutzeko interesa sortu zen gure ikasleen artean. Supermerkatua herrian bertan zegoen. Ideia horretatik abiatuta, bi irakasleok konturatu ginen ekintza hori egingarria zela jolas sinbolikorako txo-

koan eta, era berean, beste txoko batzuetan lantzeko baliagarria zela:

-Hizkuntza-txokoa, hainbat produkturen etiketak egin zituzten ordenagailuan.

-Plastika-txokoa, eguneko eskaintzen kartelak marraztu, margotu, moztu eta itsatsi zituzten.

-Matematika-txokoa, batzarrean adostutako salneurriak idatzi zituzten hainbat produktutan, eta beharrezkoa izango zuten dirua egin zuten (1-10 bitarteko txanpon eta billeteak).

Ekimen horren bidez, honako helburu hauek landu genituen:

-Salerosketa-prozesuari esker, pisu, bo-

lumen, kantitate eta abarrekin esperimentatzea.

-Hainbat kopururen batuketarekin eta kenketarekin lotura duten ezagutzen eta prozesuen hastapenak ezartzea.

-Produktuen salneurrien inguruan gutxi gorabeherako kalkuluak egitea.

-Zenbaki grafiek praktikatzeko.

-Euskaraz, gaiarekin lotura duen hiztegi eta adierazpenen ezagutza eta erabilera garatzea.

Ekintza horretan murgildurik, gure ikasleak konturatu ziren beharrezkoa zela gelara material berri batzuk ekartzea, besteak beste, kalkulagailua, diru-zorroa, pisua,

arkatza eta papera, poltsak, gurditxoak, saltzailearentzako mantala, salneurriak itsasteko etiketak, etab.; azkenik, batzarrean erabaki zuten zer motatako produktuak salduko zituzten. Modu horretan, ohartu ziren zein diren produktu galkorrak eta zeingelan edukitzeko egokiak. Erosketen zerrenda osatu ostean, supermerkatuara joan ginen eta erosketak egin genituen. Ondoren, ikasle bakoitzak libreki aukeratu zuen supermerkatuaren eraketan laguntzeko zein lan egingo zuen eta zein txokotan arituko zen lanean.

Supermerkatuaren funtzionamendua-
ren arauak batzarrean adostea gelditzen zen soilik: nor izango ziren bezeroak, nor saltzaileak, noiz aldatuko ziren rolak, etab.

Gure supermerkatua prest dago!!!

Bi astez gure supermerkatua martxan jarri ostean eta, kantitate, pisu, bolumen, gehitu, kendu eta abarrekin esperimendu ostean, 6. mailako ikasleekin ekimen hau gauzatzea komeni izango zela pentsatu genuen, modu horretan, Haur eta Lehen Hezikuntzako ikasleen arteko harremana sustatuko baikenkeen. Beraz, asteazken eta os-



tiraletan, 6. mailako bi ikasle gure geletara etorri ziren, gure supermerkatuko saltzaileak izateko.

Ikasleak motibaturik sentitzen direnean eta berek sortu duten ekintzan murgiltzen direnean, ikaskuntza esanguratsua sortzen da; irakasleok prozesuaren gidari soil bihurtzen gara. Ekimena amaitutakoan, bi tutoreok oso modu positiboan balioetsi genuen gure ikasleek bizitako eta bereganatutako esperientzia berria: intuizioa garatzea, supermerkatuaren produktuen propietate-

ak ezagutzea. Haiek izan dira beren ikaskuntza-prozesuaren benetako protagonistak.

Ondorio moduan, jolasaren hainbat unetan jaso ditugun esaldi batzuk bildu ditugu:

“Poltsa bat behar dut nire gauzak sartzeko”.

“Orain bueltak eman behar dizkidazu”.

“Dirua bukatu zait, ezin dut erosi”.

“Ordaindu gabe eraman dut, meloia lapurtu dut”.

Parte hartu, partekatu

Hezitzaileon ekarpenak sustatu nahi ditu *hik hasi*-k.

Zure esperientziaren berri emateko bidali iezazkiguzu ondokoak:

- Testua, bere izenburu eta sarrerarekin, eta azalpen teoriko eta ondorioekin.
- Esperientziaren hiruzpalau argazki (baimenarekin).

aldizkaria@hikhasi.com helbidera bidali

galdeidazue

Nola jokatu beharko genuke eskolan euskararen normalizazioan aurreratzeko



Hizkuntza baten berreskurapen-prozesua gertatuko bada nahitaezkoa da egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntzaren eza-gutzaren unibertsalizazioa erdieste. Eza-gutzaren unibertsalizazioa egiazkoa izan dadin hiztunak lortzeko hiru bide dago; lehenik eta behin, gurasoengandik seme-alabekiko transmisioa; bestetik, hezkuntza-sistemak hizkuntza horretan gaitasun ego-kia duten belaunaldi berriak bermatzea, eta azkenik, helduak egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntza horretan trebatzea.

Euskarari dagokionez ere horrela da eta horrela izan da. Azken hamarkadotan milaka euskaldun gehiagok osatzen dute gure hizkuntza-komunitatea eta horietatik asko eta asko hezkuntza-sistemak ekarri ditu. Are gehiago, pentsaezina litzateke gaur euskarak bizi duen egoera hezkuntzan azken hamarkadotan zer-nolako iraultza gertatu den kontuan hartu gabe, eta beraz, hezkuntza-komunitatetik egin den esfortzua txalotu behar delakoan nago.

Egia da, bai, oraindik urrun gaudela ezagutzaren unibertsalizaziotik eta XXI. mendean, oraindik, ikasturtez ikasturte herri honetako berezko hizkuntzan gaitasu-



Paul BILBAO SARRIA
KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

nik ez duten milaka gazte ateratzen direla ikastetxeetatik, eta ondorioz, milaka ikasleri ukatu egiten zaiela herri honetako berezko hizkuntza jakitea. Horrexegatik, kohe-sio soziala bermatzeko eta bereizkeriarik ez sortzeko nahitaezkoa da ikasle guztiei eza-gutza berdinak eskaintzea, eta ondorioz, euskararen ezagutza bermatuko duen ikas-eredu orokortua izatea.

Gure komunitateak badaki hori guztia,

baina gure hizkuntzaren berreskurapen-prozesua galgatzten dutenak ere horren jakitun dira, eta horrexegatik eraso berri bati ekin diote euskararen berreskurapen-prozesuari beste traba bat jartzeko. Eta orain-goan eraso Espainiako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirolerako ministro José Ignacio Wertek abenduan aurkeztu zuen hezkuntza-kalitatea hobetzeko lege organikoaren zirriborroa da.

Lehenik eta behin adierazi nahiko genuke Wertek aurkeztutako zirriborroak hari mutur asko badu ere, gurea bezalako hizkuntzei eraso zuzena egiten diela; besteak beste, azken hamarkadotan gure herrian ikasle euskaldunak bermatu dituen hezkuntza-eredua kanpoan utz dezakeelako. Eta, horretaz gain, gure lurraldeetan ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen eredu orokortzea debekatuko lukeelako. Hartara, egun gure ikastetxeetan gertatzen den bereizkeria gairiditzeko neurriak balio gabetako lituzke.

Lege hori abian jarritz gero, gure hizkuntzaren berreskurapen-prozesuan inflexio-puntua gerta liteke eta urteotan emandako hainbat aurrerapauso ezerezean geratuko

lirateke, eta gure hizkuntzaren etorkizuna bera arriskuan jar lezake.

Hortaz, Estatuaren eraso dela zalantzarik ez dugu. Tamalez, bestelako erasoak ere pairatu ditu gure hizkuntza-komunitateak, eta oraindik ditugu gogoan duela hamar urte euskara hutsezko egunkaria itxi zuteneko irudiak, eta beste hainbat gertaera.

Otsailean Kontseiluaren Batzar Nagusian Euskararen gutxieneoak zehazteko adierazpena aho batez onartu genuenean horren konstantzia ere bagenuen:

“Hainbatetan ikusi behar izan ditugu herrigintzatik sortutako proiektu bortxaren bidez ixten, gure lana baldintzatzen, bai eta eragozten ere. Estatuak egiturazko galga jartzen diote gure hizkuntzaren, eta ondorioz, gure herriaren normalizazioari”.

Batzuek erabakitzen dute noiz, norekin eta nora erabil edo ikas dezakegun gure hizkuntza. Batzuek, boterea erabiliz, erabakitzen dute gure herriari nola deitu behar diogun.”

Hartara Espainiako Hezkuntza ministro Wertek aurkeztutako proposamena hor kokatu behar delakoan gaude. Alegia, beste behin kanpo eskuhartzea baliatu nahi dute gure hizkuntzaren, eta gurea bezalako hizkuntzen, etorkizuna auzitan jartzeko.

Egia da, bai, Wert ministroaren aurkako ahotsak ozenago entzun direla Katalunia aldetik. Izan ere, aipatu erkidegoan ez dago gurean bezala hezkuntza-eredurik. Katalunian ez dituzte umeak eta gazteak hizkuntzaren arabera banatzen edo bereizten, eta horri esker ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan bi hizkuntza ofizialak eza gutzen dituzte, beti ere kohesio soziala eta aukera-berdintasuna ahalbidetuz. Katalunian murgiltze- edo mantentze-sistema orokortua dago eta katalana da irakas- edo ikas-hizkuntza, eta eredu horrek biziki lagundu du katalanak hainbat eremutan gaztelaniarekiko dituen desorekei aurre egiten. Hartara, Wertek proposatutako zirriborroa zuzen-zuzenean jotzen du bertan indarrean dagoen hezkuntza-ereduarekin.

Eta horren karira gehiago kezkatu ninduten Wert ministroak zirriborroa aurkeztu eta gero adierazitakoek, EAEko eta Nafarroako hezkuntza-ereduak gorai patuz. Horrelako erreforma bortitza egin nahi duen a-

gintari batek gure hezkuntza-eredua gorai patzen badu, akaso, pare bat buelta emango genioke hemen indarrean dagoen hezkuntza-ereduari.

Hortaz, eztabaida parametro egokietan kokatu behar dugu; hau da, orain da unea egun Hego Euskal Herrian gertatzen den bidegabekeriari, hots, gazte ez-euskaldunak sortzeari, amaiera emateko. Gure aldarrikapena ezin dugu mugatu egungo hezkuntza-ereduak mantentzera, urrats kualitatiboak emateko garaia iritsi da.

Horretarako, tresna egokiak baditugu, besteak beste, 2007an Kontseiluak, hezkuntzako eragile garrantzitsuenekin adostutako Ikasle euskaldunak sortzen proposamena. Azken hamarkadotan lortutako eskarmentua ere hor dago, ez gaude orain esperimentu berriak egiteko, badakigu nola lor ditzakegun gazte euskaldun eleaniztunak.

Hartara, inoiz baino garrantzitsuagoa dugu elkarlana. Erabaki ausartak hartzeko garaia dela iruditzen zaigu, eta horretarako instituzioen eta herri-eragileen arteko konplizitatea sustatu behar dugu.

EAEen aukera errealak daude ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen eredu abian jartzeko eta ezin dugu hutsik egin. Horrexegatik, euskal erakunde eta alderdiei eskura dituzten tresna guztiak erabiltzeko eskatu behar diegu, euskal gizarteak garatu duen sistema blindatzeko eta euskaldun eleaniztunak sortuko dituen eredu bultzatzeko eta babesteko exijitu behar zaie.

Euskalgintzatik oso argi dugu guk geureari eutsiko diogula, alegia, hizkuntza-komunitateari hiztunak ekartzen jarraituko du euskalgintzak. Traba, lege eta oztopoen gainetik azken hamarkadotan egindako lanari are indar handiagoaz ekiteko konpromiso sendoa dugu, baina horretarako babes behar da. Horrexegatik lortu egin behar dugu horrelako erasoari aurre egiteko gizarte eragileen, eragile sindikalen, eragile politikoen eta instituzioen arteko elkarlan trinkoa.

Euskararen berreskurapen-prozesuaren ikuspegitik Werten erasoari aurre egiteko badago, hain zuzen ere, ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen eredu, bat eta bakarra, abian jartzea. Baldintza sozial egokiak sortu behar ditugu urrats atzeraezinak emateko. Abenduaren 13an sindikalgin-

Wert lege hori abian jarritz gero, gure hizkuntzaren berreskurapen-prozesuan inflexio-puntua gerta liteke eta urteotan emandako hainbat aurrerapauso ezerezean geratuko lirateke, eta gure hizkuntzaren etorkizuna bera arriskuan jar lezake.



tzak, hezkuntza-komunitateak eta euskalgintzak, denok batera, erakutsi genuen batasuna harresi bihurtzeko garaia iritsi da. Hortaz, balia dezagun indar hori guztia politikoki eragiteko. Are gehiago, instituzioek erabaki egokiak hartzen badituzte, jakin dezatela harresia sortuko dugula Wertek planteatutako eraso berrien aurrean, eta harresi hori ezin izango dute bota, inondik inora ez.

Tresna egokiak baditugu, besteak beste, 2007an Kontseiluak, hezkuntzako eragile garrantzitsuenekin adostutako Ikasle euskaldunak sortzen proposamena. Azken hamarkadotan lortutako eskarmentua ere hor dago, ez gaude orain esperimentu berriak egiteko, badakigu nola lor ditzakegun gazte euskaldun eleaniztunak.





CAF ELHUYAR^m 2012
SARIAK

$F = m \times a$
aplikatu formula
eta **ERAGIN**

ELKARREKINTZA



Dibulgazio-artikulu originalak

Dibulgazio-artikulu orokorrak
2.000 euro

Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak
2.000 euro

Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak
2.000 euro

Zientzia gizartean sorkuntza-beka
5.000 euro

Informazioa eta oinarriak

<http://cafelhuyarsariak.elhuyar.org>

KATEGORIA BERRIA



ERRAKETA
180[€]

Gurtion INDAARRA
8[€]



Janire ITURGINA
83[€]

Afrika FISEKARIA
83[€]

Kerman ARTISTA
83[€]

Giza ARTEA
23[€]



ILARGIA MUGITZEKO MAKINA


Batzuen ANETSA
8[€]

Antolatzaileak

Laguntzaileak



argitalpenak



Ezagutu artea eranskailuen bidez

Rosie Dickins / Aiora Jaka
/ Carles Ballesteros
TTARTTALO


Artea lantzeko liburua duzu honako hau. Artearen historiako lan entzutetsuz beteta dago, eta eranskailuak itsatsiz umeak margolanak sortzeko aukera eskaintzen du. Haurrak artearen mundura gerturatzeko eta zaletasuna pizteko helburuarekin idatzitako liburuengatik ezaguna da Rosie Dickins.



Ametsi tripek hitz egiten diote

Antxiñe Mendizabal / Iosu Mitxelena
ELKAR

Ametsi, ohera sartu eta begiak itxi orduko, tripek hizketan hasten zaizkio; batzuetan, lehoi batek bezala orroka; beste batzuetan, txerri baten antzera kurrinka, eta askotan, otso baten pare uluka. Hain dira handiak hotsak, ezinezkoa zaiola lokartzea: ezinezkoa... 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako Batela bildumako liburua da.



Marikanta eta inurriak

Mariasun Landa / Jokin Mitxelena
EREIN

Marikanta txitxarrak negualdi zoragarria izango du inurritegi batean: inurriei abesten irakatsiko die, eta kanta xume baina alai bat ere asmatuko du, inurriek Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa bat irabazi dezaten. Baina inurriak, nonbait, ez dira kantagintzarako jai... Txitxarra eta inurriaren fabula ezagunaren bertsio modernoa.



Matiasen ametsa

Leo Lionni / Manu Lopez Gaseni
PAMIELA

Artea, mundu osoko kulturaren eta jakintzaren erakusleho gisa; sorkuntzaren eta askatasunaren adierazpen gisa; errealitatea eraldatzeko bide gisa. Museo batera egindako lehen bisitak bizitza aldatu dio Matiasi, eta bere etorkizuna bideratzen lagundu dio: ganbara apal batean bizi izatetik bidaiatzera eta bere margolanak nazioarteko prestigioako aretoetan erakustera.



Maitagarria eta desioa

Mariasun Landa / Maite Gurrutxaga
ELKAR

Maitagarri bati laguntzen dion neskato baten istorioa da hau. Maitagarriak, esker onez, dohain bat emango dio: bere edozein desio beteko duela. Hitza ematen dio: maitagarri hitza. Horrez gain, neskato horrek bere opariaz gozatzeko behar izango duen denbora luzeaz arituko da ipuina, nola emakumetu eta zahartu den aukera liluragarri horrekin.



Txominen sentimenduak

Liesbet Slegers / Eider Mujika
IBAIZABAL

Bere bizitzako gertakariak nolakoak, halakoak izaten dira Txominen erreakzioak. Liburu honetan ageri diren eguneroko bizimoduko egoeretan bere burua ere ikusiko du irakurleak. Azal hegalak ditu liburuak, eta aurkikuntza jolasak, txikienekin gustura jarduteko. Haurren emozioak ulertzen laguntzen du liburuak.

... nora joango gara?

ENKARTERRIETAKO MUSEOA Eskualdearen historia eta ondarea eskura

Abellanedako Batzarretxean, Enkarterrietako eraikinik esanguratsuenean kokatuta dago Enkarterrietako Museoa. Eskualdearen iraganak eta oraindik elkar hartzen duten topagune, aisialdi-leku eta jakintzagunea da gaur egun, Enkarterrietako historia, etnografia eta ondarea berreskuratu eta zabalkunde egiteko sortua baita Museoa Sopuertan.

Enkarterrietako gobernu politikoaren erdigune izan zen Abellanedako Batzarretxea mendeetan zehar. Abellanedan batzen ziren Enkarterriko haran eta kontzejuetako ordezkariak, eskualdeari zegozkion gaiez eztabaidatzeko. Han Ertaroan egindako batzarrak jendetsuak eta iskanbilatsuak izan ohi ziren, ahaide nagusien arteko burroken ondorioz. Nolanahi ere, batzarren irudi tradizionala Erregimen Zaharrekoa dugu (XV. mendetik XIX.era). Aldi horretan Enkarterriko kontzejuetako bakoitzak ordezkari bat bidaltzen zuen Abellanedako Batzarretara.

Gaur egun topagune, aisialdi-leku eta jakintzagunea da, eskualdearen iraganak eta orainak elkar hartzen duten lekua. Enkarterriaren eta enkarterritarren historiaren, politikaren, etnografiaren eta ondarearen zabalkunde egiteko eta Enkarterriaren historia, arte- eta etnografia-ondarea berreskuratzeko sortu zuten museoa 1994an. Geroztik, hainbat jardura antolatzen ditu Museoa: eskualdeko kultura ikertzeko lanak sustatu, izaera orokorreko erakusketak



apailatu, Enkarterriaren historia eta arteari buruzko azterlanak argitaratu, Enkarterriko kulturaren ugaritasuna haurrengana zuzendutako heziketa ekintzak antolatu zein bestelakoak. 2012/2013 ikasturterako ere hainbat heziketa jardura antolatu ditu Sopuertako Museoa, eta horietako batzuk datozen aste eta hilabeteetan jarriko dituzte martxan. Bada non aukeratu.

Historiaurreko tailerra

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei eta DBHko lehen eta bigarren mailakoei zuzenduta dago, eta Historiaurreko bizi-moduko arlo batzuk nolakoak ziren uler-

tzen lagundu nahi du, era aktibo eta esperimentalean. Hartzeko lanabesak egitea, sua antzinako erara piztea edota kobazuloen barrualdean egiten zituzten margoen moduko koloreak eta materialak erabiltzea dira tailerrean landuko diren ekintzetako batzuk. Otsailaren 28ra arte egingo da tailerra.

Erromatarren atzetik

Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleei zuzendutako ekintza didaktiko honen bitartez, Erromatarren garaietara bidaiatu egingo dute haurrek. Zibilizazio horren elementu garrantzitsuenak ezagutuko dituzte, modu erakargarri eta esperi-

mental baten bidez. Otsailaren 5etik martxoaren 22ra arte egingo da tailerra.

Bizi zure kontua

6 urtetik 9 urtera bitarteko haurrentzat antolatutako jarduera honek umeak ipuinaren mundura gerturatzea lortu nahi du. Ikasleak abenturaren partaide bihurtuko dira horretarako beren beregi antolaturiko eszenatokian, dekoratuaren eta bestelako baliabideen laguntzaz. Ipuinaren barruan sentituko dira haurrak, dena ikusiz, parte hartuz, kolastuz, iritziak emanez, gozatuz... Jarduera hau apirilaren 9tik ekainaren 21a arte eskainiko du Museoak.

El Pobaleko burdinolarekin batera egindako ekintza

El Pobaleko Olaren eta Enkarterrietako Museoaren eskutik, DBHko eta Batxileergoko ikasleek aukera dute Enkarterriko bilakaera ekonomikoaren berri izateko eta burdingintzak eta olek eskualdean izan duten garrantziaz jabetzeko. Ikasleak, museo-ara egindako bisitan, Enkarterriaren eremu geografikoan eta gizartean murgilduko dira eta horren ostean, El Pobaleko Ola bisitatu-ko dute, bertatik bertara ikusteko nolakoak ziren orduko tresna hidraulikoak. Ekintza hau ostiraletan bakarrik eskainiko du museoak, ekainaren 21era arte, eta gutxienezko 50 ikaslek osaturiko taldeentzat.

Sortu dezagun gure munstroa

Artelan ezberdinak behatuz, 6 eta 9 urte arteko ikasleek izaki fantastikoen sekretuekin topo egingo dute, haien atzean dauden istorioak ezagutuz. Behaketaren ostean eraketa artistikoaren txanda etorriko da, eta horretarako, irudimena gidari izanda, errealitateko forma ezberdinak uztartuz bestelako munduetara hurbilduko gaituzten izakiak eratuko dituzte. Apirilaren 9tik ekainaren 21a arte eskainiko du Enkarterrietako Museoak jarduera hau bere heziketa programaren barruan.

Museoak bestelako ekitaldiak hartzen ditu ere: esaterako, historiaurretik XIX. mendera arte eskualdeak izandako ibilbidea jasotzen duen erakusketa iraunkorra bisitatu daiteke museo-ko hamar aretoetan, eta otsailaren 3a arte Ismael Fidalgo pintorearen bi erakusketa ikusteko aukera dago. ☞

ENKARTERRIETAKO MUSEOA

Abellaneda auzoa, z/g

48869 Sopuerta

Tel.: 94 650 44 88

Web: www.enkarterrimuseoa.net

Posta: enkarterrimuseoa@bizkaia.net



NEGUKO ORDUTEGIA (ekainaren 30era arte)

Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 / 16:00-18:00

Igandetan eta jai egunetan: 10:00-14:00

Astelehenetan: itxita

UDAKO ORDUTEGIA (irailaren 30a arte)

Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 / 17:00-19:00

Igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00

Astelehenetan: itxita

SARRERA

Doan

Abellanedako Batzarretxea

Lehen eraikina XVI. mendearen hasieran eregi zen, urte zehatza jakiterik ez da goen arren. XVI. mendean zehar hainbatetan konpondu behar izan zuten, 1592n hasi ziren Batzarretxe berriko lanak, eta 1635. urtean amaitu, fatxadaren jarritako armariarekin. Eraikin berri hori kubikoa zen, lau isualdekoa, XIX. mendera arte heldu zenaren ereduakoa.

Enkarterriko batzarrak desagertu zirenean, 1806. urtean, etxea ere bertan behar geratu zen eta apurka-apurka, XIX. mendean, hondatuz joan zen. 1901ean Bizkaiko Foru Aldundiak konponketa-lanak egin zituen, Antonio Carlevaris arkitektoaren eskutik; etxearen kanpoko itxura errespetatu baina barrualdea aldatu egin zuen. 1931. urtean proiektu berria gauzatzea agindu zioten Diego de Basterrari, barrua gutziz aldatuz. Museo xume bat sortu zen etxe horretan.

Eugenio de Aginaga arkitektoaren eskutik egin zen 1942-1957. urteen arteko eraldaketa osoa, eta haren ondoren, eraikina gaur egun ezagutzen dugunaren antzera geratu zen. Beste solairu bat gehitu zion etxeari eta almenak jarri zizkion, gaur egungo dorretxe itxura emanez. Azken eraldaketa 1989an egin zen, Javier Muñoz eta Josu Urriolabeitia arkitektoen eskutik. Eraikin moderno bat eregi zen eta osorik eraldatu ziren dorrea nahiz Korregidorearen etxea.



atzeko atetik



Eneko BARBERENA

Txatxilipurdiko zuzendaria

“Gauzak alfonbra azpian gordetzea”. Ez dakit non irakurri dudan erdarakada hau, Interneten ziurrenik. Eta hori dauka sareak, asko irakurtzen dela, baina gero ez gaude ziur non, nori eta zertarako.

Alfonbrapean gordetzea, gure sistemaren engranaia koipeztaturik izateko ezinbesteko jarduera. *The show must go on*. Ez dezala gure oparotasun ekonomikoa oztopa matxismoak, buru eritasunek, txirotasunak edota herrian ijitoen kanpamendu bat izateak.

Alfonbrapean gorde eta segi aurrera.

Alfonbrapean

Honela izan behar du kapitalismoan, egun gutxik kuestionatzen duten eredu ekonomiko eta sozialean. Eta zeregin alfonbrapea horren puztua denean eta ezin denean ezkutatu edo gainean ibili? Sar dezatela eskua profesionalak. Hots, hezitzaileak. Hots, betikoak.

Eta hori kasurik onenean, bestela kausak eta ondorioak indibidualizatzen baitira. “Lan merkatua justua da, zu zaude gaixorik edo ez zara gai”. “Gizon hori erotuta dago, gizartea ez da matxista”. Psikologo eta erien gizartea, “sozial” adjektiboa erbestera nahi izan den garaiotan.

Eta hori da finean hezitzailea izatea gaur egun, berdin ikastetxe edo ludotekatan, udalekuetan edota institutuan. Arazo sakonei erantzunak ematen ahalegintzea. Abiapuntu ezberdinak dituzten haurrei ahalik eta onena eskaintzea, jakinik gober-

nuek ez dutela gehiegi egiten ezberdintasun sozial eta ekonomikoak gutxitzeko, salbuespenak salbuespen. Eta gainera, gero eta baliabide gutxiagorekin, sos eta pertsonal gutxiagorekin. Hezkidetzeta, bullying-a, kulturartekotasuna, hizkuntza-asetibitate, zuntza komunitarioen hausturak leuntzea eta abar luze bat.

Ez dira kontu berriak aipatzen ditudanak, Pernandoren egiak dira. Baina kasu, horrek ez du esan nahi-eta gauzak betierekoak direnik. Alfonbra zuloz josita dago eta alfonbrapean nahi izan gaituztenak ari gara argia ikusten. Kolektibo baztertuak ere baitaude, egotziak, errentagarritasuna jainko den mundu honetan. Eta hemen doa abisua, nahi duenarentzat: alfonbra apurtzera goaz eta zuzenean salatuko dugu bazterketa egotzi gaituena. Modako esakune bat erabiltzearen, alfonbrapekoak %99 gara.



“Irakaskuntza arautuaren bidez transmititzen ari garen hizkuntza-eredua oso-oso pobrea da”

ABEL ARIZNABARRETA

Eman diezaiogun **hezkuntzari** garrantzia



3. Hazi Hezi aldizkariaren edukia:

*GAI NAGUSIA:

Mugimendu autonomo askea

*ASTEZ ASTE, URTEZ URTE:

- Haurdunaldia: ukitu, ezagutu, gozatu
- Destetea: amaiera zoriontsua
- Neba-arrebak: etsaiak ala lagunak?
- Nerabearoa ulertu, nerabea ulertzeko

*ELKARRIZKETA:

Txusa Balbas

*ETXEKOAK MINTZO

*EZTABAIDAGAI: Umeagatik ala helduagatik isilarazten da negarra?

*JOLASAK: Xabier Zabala

*SORMENA: Juan Kruz Igerabide

*KONTSULTAK:


- Aitziber Estonba *sexologoa*
- Nerea Etxaide *osteopata*
- Libe Garmendia *nutrizionista*
- Nerea Mendizabal *psikologoa*
- Alex Muela *psikologoa*
- Mariaje Sarrionandia *pediatra*

Urteko lau aldizkariaren harpidetzak 20 euro balio du.
hik hasi aldizkariaren harpidedunentzat 15 euro.

www.hikhasi.com/harpideza

centroderecursos@alboan.org

ELKARTASUNEAN HEZTEKO BALIABIDEAK ESKURA, KLIK BATEAN



Unitate didaktikoak
jolas kooperatiboak
musika pelikulak...

<http://centroderecursos.alboan.org>



Material guztiak hemen har ditzakezu

Bilbao
Aita Lojendio, 2
Tel. 944 059 567

Iruñea
Avda. Barañain, 2
Tel. 948 231 302

Laguntzaileak:

